

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

**Erabakia, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2016ko uztailaren 7ko bilkuran hartua «Arabako Lurralde Historikoaren kontu orokorra, 2014» txostena behin-betiko onesten duena**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2016ko uztailaren 7an egindako bilkuran

ERABAKI DU

«Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, 2014» txostena behin-betiko onestea, Erabaki honen eranskin modura ageri dena.

HKEEren 1/1988 Legearen 13.2 atalak aurreikusten duena betez, txostenaren ondorioak dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzeko xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 7a

*HKEEren lehendakaria*  
**JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN**

*HKEEren idazkari nagusia*  
**JULIO ARTETXE BARKIN**

### ERANSKINA

«ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU  
OROKORRA, 2014» FISKALIZAZIOTXOSTENA

Laburdurak

AEFILO 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

AFA: Arabako Foru Aldundia.

AG: Auzitegi Gorena.

AGA: Araba Garapen Agentzia, SA.

AGDILZ: Arabako Gazteen Dokumentazio eta Informazio Lurralde Zentroa.

AHL: Arautze Harmonizatuari buruzko Legea.

ALH: Arabako Lurralde Historikoa.

ALHAO: Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.

AMAS: Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.

BBNN: Arabako Batzar Nagusiak.

BEZ: Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

CEIA: Arabako Eraberrikuntza Industrialdea.

DK: Diputatuen Kontseilua.

DKE: Diputatuen Kontseiluaren Erabakia.

DLO: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.  
EAAN: Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusia.  
EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.  
EAO: Estatuko Administrazio Orokorra.  
EB: Europar Batzordea.  
EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.  
EBS: Elkarrekiko Berme Sozietatea.  
ED: Errege Dekretua.  
EDL: Errege Dekretu Legea.  
EFPL: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.  
EGF: Europako Gizarte Funtza.  
EJ: Eusko Jaurlaritza.  
ETE: Enpresa txiki eta ertainak.  
EUA: Edateko Uren Araztegia.  
FA: Foru Araua.  
FAg: Foru Agindua.  
FD: Foru Dekretua.  
FEADER: Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtza.  
FEOGA: Nekazal Orientazio eta Bermerako Europako Funtza.  
FFAA: Foru aldundiak.  
FKPPO: Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra.  
FOFEL: Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza.  
FPEK: Finantza Publikoen Euskal Kontseilua.  
GFE: Gazteriaren Foru Erakundea.  
GLL: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.  
GOFE: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.  
HUA: Hondakin-uren Araztegi.  
KBA: Kontrataziorako barneko aginpideak.  
KSA: Kirolaren Sozietate Anonimoa.  
LFAD: Larrialdi Fiskala Arazteko Dekretua.  
LZ: Lanpostuen Zerrenda.  
MGL: Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea.  
OZFP: Obra eta Zerbitzuen Foru Plana.  
S. A.: Sozietate Anonimoa.  
SISEU: Suteak Itzaltzeko eta Salbamendurako Eskualdeko Unitatea.  
S. L.: Sozietate Mugatua.  
SOCADE: Garapenerako Euskadiko Kapital-sozietatea.  
SPKL: 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.  
SPKLTB: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.  
TEPEF: Toki Erakundeen Partaidetza Egonkortzeko Funtza.

TTEE: Toki Erakundeak.

TVCP/HKEE: Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.

ZFAO: Zergen Foru Arau Orokorra.

ZZPP: Zerbitzu publikoak.

## I. Sarrera

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2015erako Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Arabako Lurralde Historikoaren 2014ko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

– Legezkoak: aplikagarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.

– Kontularitzakoak: Kontu Orokorra aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.

– Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu likidazioaren finantza analisia.

– Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi den ere, azaleratutako hutsak «Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak» idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

ALHren Batzar Nagusien Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, lruzur fiskalaren aurkako borroka plana eta 2014ko ekitaldirako Ikuskaritza Plana aztertu ditugu.

Arabako lurralde historikoaren Kontu Orokorra ondok zerrendatutako erakundeek 2014ko ekitaldian zehar gauzatutako aurrekontu, ondare eta diruzaintzako eragiketa guztiak besarkatzen ditu (ikus ALHren Kontu Orokorra [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbidean):

– Arabako Foru Aldundia

– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE). Erakunde autonomo administratibo honek gizarte zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatu, kudeatu, bideratu eta gauzatzeko arduradun da.

– Gazteriaren Foru Institutua (GFI), gazteriaren erabateko prestakuntza eta sustapenera zuzendutako erakunde autonomo administratiboa da.

– AFAko sozietate publikoak, zeinetan kapital sozialean duten partaidetza ehuneko 50etik gorakoa den:

SOZIEKATE PUBLIKOAK	% PARTAIDETZA	XEDEA
Araba Garapen Agentzia, S. A.: (AGA)	100,00	ALHren sustapen ekonomikoa.
Naturgolf, S. A.	99,98	Izki-Golf konplexuaren ustiapena.
Arabako Kalkulu Zentroa, S. A.	100,00	Informatikako ustiapen zerbitzuak.
Arabako Kultur Ondare Eraikia kudeatzeko sozietate anonimoa (Arabarri) (*)	55,90	Zaharberritze integratuko jarduerak.
Arabako Lanak, S. A.	99,56	Azpiegiturako obra publikoak egin, finantzatu eta ustiatzea.
Fernando Buesa Arena, S. A.	100,00	Likidazioan.
Arabako Bideak, S. A.	100,00	Arabako Lurralde Historikoan zehar igarotzean A-1 Autobidea eraiki, zaindu, mantendu eta ustiatzea.
Aldalur Araba, S. L.	100,00	Nekazaritza eta arrantzaren garapenerako lursailen salerosketa.
Indesa 2010, S. L.	99,98	Arabako pertsona ezinduentzat enplegu aukerak sortu, betiere Enpleguaren Zentro Berezi modura.

(\*) Arabako Lanak, S.Aren partaidetza ehuneko

## II. Iritzia

## II.1. Legea betetzeari buruzko iritzia.

## II.1.1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

GOFEk 3 hornidura eta 3 zerbitzu kontratatu ditu guztira 836.114 euroren zenbatekoan, ezargariak zaizkion prozedura ireki eta/edo publizitadedun negoziatua saihestuta.

## II.1.2. Sozietate Publikoak.

1. Indesa 2010, SLk egindako bi langileren kontratazioak urratu egiten du 2014ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/2013 Legearen hogeigarren xedapen gehigarria.

2. Indesa 2010, SLk zenbait hornigai eta zerbitzu 581.956 euroren zenbatekoan kontratu txiki modura kontratatu ditu, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz.

Arabako Lanak, SAK bi kontratu esleitu ditu (4 eta 5 espedienteak), 331.984 euroan, lizitazioaren publikotasun printzipioa urratuz.

3. 2013ko urriaren 18an Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren (COAVN) Arabako ordezkariak salaketa aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agentziaren aurrean Arabako Lanak, S. A., AFA eta udal eta administrazio-batzarren aurka, zeinek Arabako Lanak, SAri, besteak beste, urbanizazio-, eraikuntza-proiektu eta obra zuzendaritzak sistematikoki kudeaketa mandatu bidez esleitu zizkieten, lehia askaren arauak urratuz. 2015eko azaroaren 11n Lehiaren Euskal Kontseiluak ebatzi zuen «egiaztatu dela Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1.a) artikulua urratu dela, eta horren erantzule direla AFA, Arabako Lanak, S. A. eta zenbait udal eta administrazio-batzar, eta AFARI eta Arabako Lanak, SAri, hurrenez hurren, 50.000 euroren eta 15.000 euroren zigor-isuna jar dakiela.»

Epaitegi honen ustetan, II.1.1 eta II.1.2 ataletan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeek (ikus I. Sarrera) zuzentasunez bete dute 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

## II.2. Kontuei buruzko iritzia.

## II.2.1. Arabako Foru Aldundia.

AFAk 2014ko Kontu Orokorrean aurkeztu duen Diruzaintza Geldikina 54,5 milioi euroan murriztu behar da ondotik adierazitako doiketen ondorioz:

	EUROAK MILAKOTAN	
	D. GELDIKINA 31.12.14	FUNTS PROPIOAK 31.12.14
Erakunde konpromisoak, espezieetan kobratutako laguntza fiskalak	—	(21.220)
Buesa Arena obren finantzaketa, AGARI eskualdetzeko zain	(10.865)	—
Erakunde konpromisoak, partaidetza mailegu bidez kobratutako zor fiskalak	—	(4.593)
TEPEF 2008, 2009 eta 2011ko FOFEL likidaz., 2016tik aurr. kobr. geroratua	(43.592)	—
Partzuergoei doan lagatako ondasunak, ibilgetu finantzarioan erregistratuak	—	(9.020)
<b>GUZTIRA</b>	<b>(54.457)</b>	<b>(34.833)</b>

Epaitegi honen iritzira, II.2.1 atalean adierazitako salbuespena alde batera, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeek (ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan 2014ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargaria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Iritziaren atalean eraginik ez badu ere, ondotik adieraziko ditugun alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

### Arabako Foru Aldundia

– Urriaren 25eko 29/2007 Legeak 2007-2011 bosturtekorako Euskal Herriko Kupoa zehazteko metodologia onesten du; ekitaldi itxieran, lege horretatik eratorritako Estatuko Administrazioarekiko finantza harremani dagokionez -indarraldia amaitu ondoren eta aipatutako Legearen Azken Xedapen Lehenengoari jarraiki, automatikoki luzatu dena-, EAEn Administrazio Orokorrek desadostasunak ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin metodologia horretako Hirugarren Xedapen Osagarriaren (hezkontza, osasun eta menpekotasun gaitako akordioak) eta Bosgarrenaren (oinarria eta/edo gaurkotze indizearen berrazterketa) aplikazioa dela eta; baita, enpleguko politika aktiboen gaitan EAEn aplikatuko zaion eskualdaketaren aurrekontu erregimenari dagokionez ere. Ez dakigu desadostasun hauek ebazteak zein ondorio eragingo dituen AFEn kontuen gainean.

### Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

– Urriaren 25eko 29/2007 Legeak 2007-2011 bosturtekorako Euskal Herriko Kupoa zehazteko metodologia onesten du; ekitaldi itxieran, EAEn Administrazio Orokorrek desadostasunak ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin, besteak beste, Hirugarren Xedapen Osagarriaren (menpekotasun gaitako akordioak) aplikazioa dela eta; txosten hau idatzi dugun datan ez dakigu zer ebatzi duten. GOFEn kontuek 5,1 milioi euroren kobratzeko saldoa barne hartzen dute, Estatuaren transferentzietan 39/2006 Legearen ondorioz (Autonomia pertsonalaren Sustapena eta mendeko egoeran dauden pertsonen arreta ematekoa) egindako murrizketen ondorioz. AFEn likidazioak Diruzaintza Geldikinean kopuru honekin erreserba bat jasotzen du.

### III.. Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak

Atal honek besarkatzen ditu ALHren bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1. Arabako Foru Aldundia.

##### III.1.1. Aurrekontua eta kontabilitatea.

– 2014ko abenduaren 31n Kontu Orokorren urteanitzeko gastuen egoerak ez ditu geroko ekitaldietarako hartutako konpromisoak jasotzen, 2 milioi euroren zenbatekoan:

	EUROAK MILAKOTAN
	2014
Biomasarentzat enologia laborategiko berogailua jartzea	115
Ekialdeko errepideen foru sarearen zaintza integrala 2013-2014	923
Mendebaldeko errepideen foru sarearen zaintza integrala 2013-2014	923

– AFAk inbertsio errealeen kapituluaren barruan 7,2 milioi euroren gastuak kontabilizatu ditu, kontularitzan ondarean galera eta irabazietan jasotzen direnak. Batik bat, azpiegiturak konpondu eta zaintzeko dira.

– «Salgai dauden aktiboak» egoera balantzeko idazpuruak 5 milioi euroren saldoa du, aurreko ekitaldietan zor fiskalak berdintzeko erositako bi artelani dagozkienak; horiek, baina, ez dituzte idazpuru honetan jasoak izateko FKPPOn zarpigarren balorazio-arauaren ingurua-barrak betetzen, horiek ezin baitira berehalako saltzekotzat jo, ezta oso gertagarri ere.

– «Kontraabalak» izeneko aurrekontuz kanpoko eragiketen errubrikak ez ditu 345.487 euroren emakidak jasotzen, Araban 2014ko ekitaldian ETE eta autonomoen proiektuak finantzatzeko programari dagozkionak.

– Uztailaren 13ko 20/2012 LED betez, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa, AFAk eta bere erakunde autonomoek ez zuten 2012ko azken aparteko ordainsaria ordaindu. Arabako Lurralde Historikoaren 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorren oroitidazkiak ez du horren erabilgarritasunaren mugaketei buruzko informaziorik ematen.

### III.1.2. Zerga sarrerak.

– Zerga dokumentazio guztiaren informatizazioa Ogasun Zuzendaritzaren Datu Fiskalen Azterketa eta Kudeaketa Zerbitzuak egiten du eta hori guztia Tributuen Zerbitzuek egiaztatzen dute. Agiri horiek erregistratetik laburpenak sortzen dira, kontabilizazioaren euskarri direnak. Kontabilitatean, berriz, funtsen mugimendua soilik egiaztatzen da eta kontularitzako agirietan artekaritza formala baizik ez da egiten.

Informazio fiskalaren atal bat eskuz kontrolatzen da. Horietan bereziki gailentzen dira egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea. Kontularitzako erregistroek oinarrizko helburu den kontrol-egitekoa gauzatu behar dute, kontularitzako sistemak informazio guztia jasotzen duelako ziurtasuna izateko moduan; honenbestez, lehentasun erabatekoa eman behar zaio prozesuen automatizazioaren bitartez kudeaketari buruzko informazioaren kalitatea hobetzeari eta kontularitzan diru-bilketa zerbitzuaren informazioa barne hartzeari. Berebat, gomendagarria litzateke Aldundiak jatorri fiskaleko eragiketen egiaztaketak egitea.

– Zatikapenak eta gerorapenak:

Egindako azterlanaren bitartez ikusi dugu ondotik zerrendatutako zatikapenak araudiak agintzen duena baino ehuneko 5) interes tipo txikiagoan eman direla, bertan araututakoak baino epe luzeagoetarako (11 hilabete) eta inongo bermerik eskatu gabe.

- 217/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiak bi zergapekori zorraren 18 hilabetetarako zatikapenak ematen dizkie, ehuneko 1ean, 838.603 euroren zenbatekoan.

- AFAk 235 eta 738/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakien bitartez 20,5 milioi euroren zatikapenak eman dizkie guztira 21 zergapekori, ehuneko 1eko interes tipoarekin, 4 eta 9 urte bitarteko aldietarako eta iraungipen datatik aurrera kontatuta bi urteko gabe-aldiarekin.

- 596/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiaren bitartez 18,2 milioi euroren zatikapena eman zaie enpresa talde bateko bi erakunderi eta horietatik 10,6 milioi euro 2012 eta 2013ko DKE bidez geroratutako birfinantzatzek dira, ehuneko 0,5eko interes tipoarekin, 8 urteko aldirako gehi hiru urteko gabe-aldia. Gainera, 17,4 milioi euroren zorra duen erakundeetako bati, ehuneko 1eko berandutza interes tipoa ezarri zaio.

293/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiaren bitartez enpresa talde bateko 17 erakunderi 5,5 milioi euroren printzipalaren gainean zatikapena eman zaie 3 urteko aldirako, arautegiak ezarritako epea gaingiduz; horietatik 2,2 milioi euro aurreko ekitaldietako birfinantzatzek dira eta 2,5 milioi euro, berriz, hirugarrenak bide exekutiboan zuen zorra.

725/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiaren bitartez zordun bati 7,5 milioi euroren printzipalaren gainean zatikapena eman zaio; horietatik 5,1 milioi euro aurrez geroratu eta zatikatutako zorrak dira, 5 urteko aldirako, araudi arautzailean ezarritako epea gaingiduz eta inongo bermerik aurkeztu gabe.

AFAk prozeduraren bat garatu behar luke Zerga Foru Arau Orokorrean aurreikusitako baldintza bereziak ezartzeko.

– Ekitaldi itxieran bi zergapekok BEZa itzultzeko bi eskaera aurkeztu dituzte, guztira 3,3 milioi eurorenak; eskaera horiek ez dira ebatzi eta sei hilabetetik gorako antzinatasuna dute. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrearen 31.2 artikulua agintzen duenaren arabera, AFAk likidazio hauen kopuruak berandutza interesarekin batera ordaindu behar ditu.

– 2014an kirol erakunde baten zor fiskalen baliogabetzea erregistratu da gauza bidezko ordainketa eginda, 1,1 milioi eurorena; horretarako, 2011n 12 urteko eperako emandako partaidetza mailegu bat berritu da (kopuru horretan gehituta). 2011n izenpetutako berritze-konpromisoaren kontratuak ezarritako baldintza izan zen mailegua muga-eguneratzeko kausetarik batere ez zela gertatuko. Ez da egiaztatu baldintza horiek bete diren.

### III.1.3. Langileria gastuak.

Indarreko LZetan zerbitziburutzako 32 lanpostu daude izendapen aske bidez hornidura gordea dutenak; ordea, EFPLren 46.4 artikulua agintzen du zuzkidura molde ohikoa lehiaketa dela. Bestetara, ez da behar hainbat justifikatu izendapen aske bidezko hornidura, ez baita lanpostuen banakako azterketarik egin, zuzendaritzako edo arduraren bereziko egitekoak egiten direla erakutsiko dutenak.

### III.1.4. Kontratazio administratiboa.

2014an 30,1 milioi euroan esleitutako 17 espedienteren lagina aztertu dugu eta aurreko urteetan esleitutako beste 22 espediente, 2014n 20,7 milioi euroren egikaritzea izan dutenak. Zera ikusi dugu:

– Nerbioiko parke linealaren bide berdea eraikitzeke lanen espedientean (15. espedientea), 173.252 euroan esleitu zenean, 21.450 euroren aldaketak egin dira dagokion kontratazio espedientea izapidetu gabe, gerora Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bidez baliokidetu zirenak.

– Samaniegoko hondakin-urak Villabuenako mendebaldeko biltegi berrira eramateko obren espedientean (14 zk. espedientea), 846.075 euroan esleitu zenean, prezioaren irizpidearen puntuazioa esleitzeko baliatutako formulak saritu egiten ditu aurkeztutako bategen beste aritmetikora gehien gerturatzeko diren eskaintzak eta zaildu egiten du eskaintzarik merkeenaren aldeko esleipena.

– Jundizko hondakinak sailkatu eta bereizteko plantan egindako hobekuntza lanen azken egiaztagirik ez dago (37. espedientea), 461.441 euroan esleitu zena.

– ALHren animalien osasun gaietako lan eta programen espedientean (27 zk. esp.), 2,8 milioi euroan esleitutakoan, animalien partaidetza duten eta albaitariaren kontrola beharrezkoa den azoka eta ekitaldietara joateagatik emandako zerbitzuetatik eratorritako tasa kobratu gabeen kontrolik ez da egiten.

2014ko abenduaren 30ean kirol elkarte batekin hitzarmen bat izenpetu zen, ALH sustatu eta balioa emateko publizitate ekintzak gauzatzeko eta 2014-2015 denboralirako Arabako oinarriko saskibaloia bultzatzeko. Hori dela eta, AFAk 2015ean sozietateari 1,3 milioi euro ordainduko dizkio. Hitzarmen honek babesletza kontratu modura sailkatuko genituzkeen jarduerak besarkatzen ditu (kamiseta, taula eta abarretan logoak eramatea), diruz lagungarri diren jarduerari dagozkienak. Honela, bada, jarduerak agiri eta prozedura bakar batekin bideratzen dira, araudiak prozedura berariazkoen bidez izapide bereziak gauzatzeko eskatzen duelarik.

• Babesletza: ez dira baloratu kirol elkarteak eman beharreko prestazioak, AFAn eta elkarte honen kontraprestazioak baliokide izan daitezten.

• Diruz lagundutako jarduerak: finantzatutako jarduerak egitea ez ezik, horien kostua ere justifikatu behar da eta hartzaileari –diru-laguntzen onuradun den aldetik– indarreko legediak agintzen dituen gainerako obligazioak betetzeko eskatu: baterako laguntzen berri ematea, aurrez emandako kopuruak bermatzea, e.a.

Hitzarmen honek kirol erakundeak erantzukizun orotatik salbuesteko klausula barne hartzen du euren obligazioak betetzen ez dituzten kasuetan; klausula hori araudiak kontratugilearen erantzukizun gaitan SPKLk eta diru-laguntzaren onuradunarenak 3/1997 FAn arautzen dutenaren aurkakoak dira.

### III.1.5. Diru-laguntzak.

#### Ezaugarri komunak

Diru-laguntzen Lege Orokorrek, lehenengo xedapen iragankorrean urtebeteko epea ezartzen zuen Lege hau indarrean sartzen zen unetik aurrera diru-laguntzak bertan ezarritako araubide juridikora egokitzeko, eta epe hori 2005eko otsailean amaitzen zen. Ordea, AFAk ez du egokitzapen hori egin eta honenbestez, zuzenean aplikatu beharrekoak dira DLOk Estatuko oinarriko legedizat jotzen dituen haiek.

AFAk diru-laguntzen plan estrategiko batean eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak zehaztu behar lituzke, horiek lortzeko beharrezko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa iturriak, eta kasu guztietan, aurrekontuaren egonkortasun helburuak betetzera meneratu beharko luke (DLOren 8. art.).

#### Diru-laguntza zuzenak

– Diputatuen Kontseiluak bi diru-laguntza zuzen eman ditu, 90.000 euroren zenbatekoan, deialdi publikoa egitea eragozten duten arrazoiak egiaztatu gabe.

– Guztira 90.000 euroren bi diru-laguntza zuzenetan alde aurreko ordainketak egin dira, jarduera garatzeko aurrerakina beharrezkoa zela justifikatu gabe, 3/1997 FAren 12. artikuluari jarraiki.

#### Deialdi publiko bidez emandako diru-laguntzak

– Lau deialdiren oinarri-arau erregulatzailerak aztertu ditugu: berrikuntzarako, Araban enpresa berriak abiarazi eta sortzeko, ikastetxe eta erakundeetan prestakuntzarako eta turismoa sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak ematen dituztenak, hurrenez hurren, 1,1 milioi euro, 531.975, 383.553 eta 502.862 eurorenak; horietan hautaketa baremoek irizpide orokorrak barne hartzen dituztela ikusi dugu.

– Nekazaritzako baliabide hidrikoen kudeaketari 2014 eta 2015eko ekitaldietan gauzatzeko 826.889 euroren diru-laguntzak ematen dizkion deialdiaren oinarri-arau erregulatzailerak (42/2014 FD) ez dute inongo irizpiderik finkatzen urtekoen artean laguntzak banatzeari dagokionez.

#### III.1.6. Beste kontzeptu batzuk.

– Bost finantza-erakundetan ez dira baimendutako sinadurak gaurkotu.

– 2013ko uztailean zordun baten ordainetan erositako lursailak, 5,4 milioi euroan baloratuak, Jabetza Erregistroan izen eman gabe daude fiskalizazio txosten hau idatzi dugun datan, ALHren Ondareari buruzko FAren 19. artikulua urratuz.

#### III.2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

##### III.2.1. kontratazioa.

– Administrazio-klausula berezien agiriek esleipen irizpide orokorrak dituzte familia-harrera eta adopzio programarako (1 zk. espedientea), 710.882 euroan esleitutakoa.

– Etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko bi espedientetan (2 eta 3 zk. espedienteak), 17,9 milioi euroan esleitu zirenetan, prezioaren irizpidearen puntuazioa esleitzeko baliatutako formulak saritu egiten ditu aurkeztutako bategiaren aritmetikora gehien gerturatzen diren eskaintzak eta zaildu egiten du eskaintzarik merkeenaren aldeko esleipena.

– 2014an 18,6 milioi euroan esleitu ziren hiru kontraturen (1, 2 eta 3 zk. espedienteak) balioetsitako balioak ez du balizko luzapenen zenbatekoa jasotzen (SPKLTBren 88.1 art.).

– 2014an 17,9 milioi euroan esleitu diren bi kontratu (2 eta 3 zk. espedienteak) zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu modura izapidetu dira. Zerbitzuaren ustiapen-arriskuaren inongo eskualdaketarik esleipendunari egin ez zaionez gero, gizarte eta osasun zerbitzuko kontratu modura izapidetu behar ziritekeen (SPKLTBren 2. eranskineko 25. kategoria). Ondorioz, aurreikusitako iraupenak -luzapenak barne- inola ere ezingo ziren pleguetan finkatutako 10 urteetara luzatu.

– GOFEK zuzenean kontratatu ditu lau hornidura eta sei zerbitzu, guztira 407.246 euroren zenbatekoan, dagokion kontratazio espedientea izapidetu gabe; alabaina, eskaintzak egiteko eskatuta publikotasunik gabeko prozedura negoziatua erabili behar zatekeen.



### III.3. Gazteriaren Foru Erakundea.

#### III.3.1. Langileria gastuak.

Txanda-kontratuaren formula bidez egindako hiru kontrataziotan ez daude jasota kasu bakoitzean gertatzen diren salbuespenezko inguruabarrak eta beharrian premiazko eta atzeraezinak, abenduaren 30eko 20/2011 LEDen 3.2 artikuluari jarraikiz, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza gaietan premiazko neurriei buruzkoa eta abenduaren 23ko 22/2013 Legearen 20.2 artikuluari jarraikiz, 2014ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

#### III.3.2. Kontratazioa.

Gazteen Informazio eta Dokumentazio Lurralde Zentroaren mantentze-zerbitzuaren kontratuan (1 zk. espediente), 329.220 euroan esleitutakoan, ALHAOn argitara emandako iragarkiak ez du kontratua luzatzeko aukeraz artatzen eta horren balioetsitako balioak ez ditu luzapenen zenbatekoak barne hartu.

### III.4. Foru Sozietate Publikoak.

#### III.4.1. Langileria gastuak.

Indesa 2010, SLko aldi baterako langileen kontratazioetako espedienteetan ez daude jasoak kasu bakoitzean gertatzen diren aparteko inguruabarrak, ez beharrian premiazko eta gero-raezinak ere (22/2013 Legearen hogeigarren xedapen gehigarria, 2014ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa).

#### III.4.2. Kontratazioa.

##### Alderdi orokorrak

Arabako Garapen Agentzia, S. A., Arabako Lanak, S. A., Arabako kalkulu-zentroa, S. A., Naturgolf S. A., Indesa 2010 S. L. eta Arabako Bideak, SAren kontrataziorako barne aginpideak aztertu ditugu; hona hemen azaleratu diren ez-betetzeak:

– Arabako Lanak, SAren aginpideek ez dute lehia printzipioa bete eta ekonomikoki onuragarrien den eskaintza eskuratuko denik bermatzen, proposamenak aurkezteko emandako epea izugarri laburra baita.

– Arabako Bideak, SAren aginpideek hornidura eta zerbitzuetan, 50.000 euroren azpitiko kontratueterako eskaintzarik eskatu gabe esleipen zuzena egitea aurreikusten dute; honenbestez, ez da lehia printzipioa betetzen, ezta ekonomikoki egokien den eskaintza hautatzekoa ere.

– Naturgolf, SAren aginpideak ez zaizkio SPKLTBren araudiari egokitzen.

– Arabako Lanak, S. A., Arabako Kalkulu Zentroa, S. A., Naturgolf, S. A. eta Arabako Bideak, SAen aginpideek eguneratu gabe dituzte 2014an indarrean zeuden zenbatekoak SARA kontratueterako.

##### 2014ko esleipenak eta aurreko urteetako kontratuak

– Araba Garapen Agentzia, SAK (1 zk. espediente) eta Naturgolf SAK (12 zk. espediente) hurrenez hurren 92.130 eta 435.600 euroan esleitutako bi kontraturen esleipen irizpideen artean enpresaburuaren kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen zuzendutakoak barne hartzen dira; horrek SPKLTBren 150. artikuluan xedatutakoa urratzen du, balorazio irizpideak eskaintzari dagozkionak behar dutela izan, eta ez eskaintzaileari dagozkionak esaten baitu.

– Arabako Kalkulu Zentroa, SAK 916.796 euroan esleitutako lau kontratutan (6, 7, 8 eta 9 zk. espedienteak) eta Indesa 2010, SLk 328.308 euroan esleitutako batean (11 zk. espediente) prezio irizpidearen haztapena aldakorra da, egiaz aurkeztutako eskaintzen arabera eta horrek desitxuratu egiten du pleguetan emandako balioa.

– Indesa 2010, SLk zerbitzu bat eta hornidura bat zuzenean kontratatu ditu 97.613 euroren zenbatekoan; ordea, kontrataziorako barne aginpideen arabera, prozedura negoziatua bideratu behar zukeen, gutxienez hiru eskaintza egiteko eskatuta.

– Arabako Kalkulu Zentroa, SAK ALHren Aurrekontu Orokorri egindako emendakinak kudeatzeko informatikako aplikazio bat garatzeko kontratua (8. Espediente), 112.000 euroan esleitutakoa, 2014ko uztailearen 1ean desegin zen elkarren arteko adostasunez, esleipen hartzaile izan zen enpresak kontratuaren xede zen zerbitzua emateko ezintasunaren aurrean. Kontratua desegin zen datara arte egindako lana berrikusi eta onartu zen, 74.520 euroren zenbatekoan.

#### III.4.3. Hornitzaileei ordainketa epeak.

Uztailearen 5eko 15/2010 Legeak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du, merkataritzako eragiketetan berankotasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena; Lege horrek Xedapen gehigarri hirugarrenean agintzen du sozietateek berariaz argitaratu beharko dutela haien urteko kontuen Oroitidazkian hornitzaileei ordainketak egiteko epeei buruzko informazioa.

Aipatutako oroitidazkien arabera, Arabako Lanak, S. A., Arabarri, S. A. eta Arabako Bideak, S. A. sozietateek ordainketarako legeak agintzen duen gehienezko epea gainditu dute:

ERAKUNDEA	EUROAK MILAKOTAN	
	EGUNAK GAINDITUTAKO EPEA	ZENBATEKOA
Arabako Lanak, SA	59	2.311
Arabarri, SA	28	1
Arabako Bideak, SA	26	70

#### III.4.4. Bestelako irizpenak.

##### Arabako Lanak, S. A.

– 2012ko azaroaren 8an, Arabako Lanak, SAren Batzar Orokor Apartekoak estatutu berriak onartu zituen sozietatearentzat; hauek finkatzen dute sozietateak akziodunen berezko baliabide eta zerbitzu tekniko izaera izango duela sektore publikoko kontratuen sektoreko legerian aurreikusitako ondorioetarako. Estatutu hauek aztertuta eta SPKLTBaren 24.6 artikuluari dagokionez esan behar da ez direla bere akziodunen atal diren toki entitate horien aldetik kontrola dagoela baieztatzea bideratuko duten baliabideak aurreikusi eta horrek auzitan jartzen du sozietate entitate horien baliabide propio izatea. Berebat, eta SPKLTBren artikulua berari dagokionez, Arabako Lanak, SAren estatutuek ez dute zehazten zein mandatu erregimen eman dakizkiokeen, zeina AFArekin 2012ko abenduaren 12an izenpetutako hitzarmen orokorrera lerratua geratzen den.

– Arabako Lanak, SAK Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolegio Ofizialarekin hitzarmen bat izenpetu du, zeinaren arabera sozietateak bere kontratazio aginpideen arabera zuzenean edo prozedura sinplifikatu bidez kolegioak sortutako lan-poltsa baten bitartez lanak esleitu ditzakeen. Hitzarmenaren arabera, kolegioak zehazten du zein profesionalek osatuko duten lan-poltsa hau, eskatuko dituzten lanak egiteko beharrezkoak diren eskarmentu eta gaitasun teknikoko hainbat baldintzen arabera; baldintza horiek ez dira zehazten.

– AFAk 2012an Arabako Lanak, SAren alde 390.000 euroren balioa zuten zenbait lonja laga zituen, 10 urteko eperako, bulego modura eta ibilgailu eta tresneria gordetzeko erabilera eskusiboa izateko. Diputatuen Kontseiluak 2014an lonja horiek doan besterentzea erabaki du, ekitaldiko urteko kontuak onartu diren datan Erabaki hori Merkataritza Erregistroan erregistratu ez dela.

– Ez ditu ALHAAn argitaratzen eraikitako kultur ondarea zaintzera emandako jarduerak sustatzeko 300.000 euroren zenbatekoan emandako diru-laguntzak (3/97 Faren 9.3 artikulua).

##### Arabarri, S. A.

Sozietateak ez ditu amortizatzen ibilgetu ukiezinean 1,6 milioi euroren zenbatekoan erregistratutako ondasunak, amortizazio hori salbuestea justifikatuko duen inongo arrazoirik ez dagoela.

Indesa 2010, S. L.

Merkataritza Erregistroan erregistratzeke daude 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako urteko kontuak. Sozietatearen erregistro orria itxia dago eta ezin dira jaso errektoretza organoen ekintza eta erabakiak, hala nola, 2013ko apirilaren 25eko bazkideen Batzar Nagusian onartutako kapital zabalkuntza, 3,9 milioi euroena, ekarpen ez diruzko bidez ordaindutakoa, Sozietatearen ondare garbian erregistratua ez dagoena.

#### IV. Finantza analisia

AFAk 2013 eta 2014ko ekitaldietan kitatutako magnitude nagusiak honako hauek dira:

ARABAKO FORU ALDUNDIA	EUROAK MILAKOTAN		
	2013	2014	BARIAZIOA 2014/2013
Sarrera arruntak	1.915.356	1.989.270	% 3,9
Zerga zuzenak eta zeharkakoak	1.880.138	1.948.948	
Tasak eta bestelako sarrerak	27.737	34.772	
Transferentzia arruntak	5.873	3.792	
Ondare sarrerak	1.608	1.758	
Erakundearteko konpromisoak	1.543.724	1.579.684	% 2,3
Estatuari kupoa	122.595	105.997	
EJri ekarpena	1.225.824	1.288.712	
Udalei ekarpena	195.305	184.975	
Sarrera arrunt garbiak	371.632	409.586	% 10,2
Gastu arruntak	280.121	287.956	% 2,8
Langileria gastuak	56.821	57.681	
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	45.748	45.092	
Finantza gastuak	15.953	17.229	
Transferentzia arruntak	161.599	167.954	
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)	91.511	121.630	% 32,9
KAPITALEZKO ERAGIKETAK (2)	(46.147)	(45.750)	% (0,9)
Egiazko inbertsioen besterentzea	1.590	624	
Kapitalezko transferentziek eragindako sarrerak	11.135	17.704	
Inbertsio errealetan gastuak	(34.579)	(28.216)	
Kapitalezko transferentziek eragindako gastuak	(24.293)	(35.862)	
FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)	34.203	8.700	% (74,6)
Finantza aktiboaren bariazio garbia	(13.470)	(14.223)	
Finantza pasiboaren bariazio garbia	47.673	22.923	
AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3)	79.567	84.580	% 6,3
Aurreko ekitaldietako emaitza (4)	(77.822)	(91.967)	
Finantziazio-desbideratzeak (5)	—	(234)	
Doiketa finantzarioa (6)	(94.004)	(82.707)	
EKITALDIAREN AURREKONTU SALDOA (1+2+3+4+5+6)	(92.259)	(90.328)	% 2,1
DIRUZAINNTZA GELDIKINA	232.465	224.844	
DIRUZAINNTZA GELDIKIN ERABILGARRIA	138.461	142.137	
AURREKONTUKO ZORPETZEA	476.187	499.110	

## Eragiketa arrunten emaitza

2014ko ekitaldian likidatutako eragiketa arruntek eragindako emaitza ehuneko 32,9 gehitu da 2013an kitatu zenarekiko, 91,5 milioi euro izatetik 121,6 milioi euro izatera aldatuz. Igoera honen arrazoia, nagusiki, zerga zuzen, zeharkako eta tasa eta bestelako sarrerren kontzeptuan aitortutako sarrera handiagoei dagokie.

Gastu arrunta, erakunde konpromisoak kenduta, ehuneko 2,8 hazi da. Finantza gastuek ehuneko 8,0 egin dute gora zorpetze maila handiagoa izan delako eta erakunde eta sozietate publikoei egindako transferentziak ehuneko 3,3 gehitu dira.

Erakunde konpromisoek eragindako gastua 36 milioi euroan gehitu da ehuneko 2,3), itunpeko zergen diru-bilketa igo delako (ehuneko 5,1). Ondoren, azken lau ekitaldietan itunpeko zergen dirubilketak, AFAREN finantzaketa iturri nagusi dena, izan duen bilakaeraren analisia egingo dugu:

	EUROAK MILAKOTAN	
	2013	2014
DIRU-BILKETA	1.808.296	1.900.452
Estatuari kupoa	122.595	105.997
EJri ekarpena	1.225.824	1.288.712
TTEEn partaidetza tributuetan	195.305	184.975
ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK	1.543.724	1.579.684
<b>Diru-bilketaren g/%</b>	<b>% 85,4</b>	<b>% 83,1</b>

## Kapital eragiketen emaitza

Ekitaldian egikaritutako inbertsioei, finantzaketarako jasotako sarreretatik garbi, aurreko ekitaldikoko maila bertutan eusten zaie. Nolanahi den ere, egiazko inbertsioek eragindako gastua ehuneko 18,4 murriztu da eta kapital transferentziek eragindako gastua ehuneko 47,6 gehitu da, batik bat, sektore publikoari egindako kapital transferentziek izan duten igoeraren ondorioz. Bestetik, kapital transferentziek eragindako sarrera ehuneko 59 gehitu da aurreko ekitaldiarekiko, Europar Batasunetik (FEDER) eta Eusko Jaurilaritzatik (Buesa Arena handitzeko hitzarmena) jasotako sarrera handiagoen ondorioz.

## Finantza eragiketen saldoa

2014an zorpetze berriak ehuneko 22,34 egin du behera eta amortizazioa ehuneko 25,74 gehitu da 2013koarekiko.

## Diruzaintza geldikina eta zorpetzea

— Diruzaintza Geldikin Erabilgarria, behin diruzaintza geldikinetik finantza doiketa kendu ondoren, 2013ko ekitaldiarekiko 3,7 milioi euroan gehitu da. Epaitegi honek proposatutako doiketak aintzat hartuta, 2014an Diruzaintza Geldikinaren saldoa positiboa litzateke 87,7 milioi euroren zenbatekoan, 2013ko ekitaldikoko Diruzaintza Geldikina bezala, zeina 66,1 milioi euroan positiboa zatekeen.

— 2014ko ekitaldian AFAn beste zorpetze bat baliatu du 59,8 milioi euroren zenbatekoduna eta ekitaldi itxierako zor bizia 22,9 milioi euroan gehitu da. AFAREN aurrekontuko zorpetzea 2014ko abenduaren 31n 499,1 milioi euroana da, hau da, 2013ko abenduaren 31n zuena baino ehuneko 4,8 handiagoa.

— Sozietate publikoen zorpetzea barne hartzen badugu, urteko igoera ehuneko 2,7koa da.

	EUROAK MILAKOTAN	
	2013	2014
AFAREN aurrekontuaren zorpetzea	476.187	499.110
Arabako Lanak, SAri maileguak	1.033	—
Arabako Bideak, SAren zorpetzea	108.307	106.309
Araba Garapen Agentzia, SAren zorpetzea	27.550	24.650

	EUROAK MILAKOTAN	
	2013	2014
Arabbarri, SAren zorpetzea	488	488
Indesa 2010, SLren zorpetzea	3.589	3.167
<b>GUZTIRA</b>	<b>617.154</b>	<b>633.724</b>

## Ondorioa

– AEFILOk 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, aurrekontuan oreka edo egiturazko superabit egoera modura ulertzen direnak eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzaizen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

– 2014ko ekitaldi itxieran finantza igoera 2013ko ekitaldikoaren parekoa da. HKEEk proposatutako doiketak egin ondoren Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 2013an 66,1 milioi eurorena izatetik 2014an 87,7 milioi eurorena izatera aldatu da eta AFAk erregistraturiko zorpetzea, berriz, 2013an 476,2 milioi eurorena izatetik 2014an 499,1 milioi eurorena izatera aldatu da.

## V. Urteko kontuak

## V.1. Arabako Foru Aldundiaren Kontuak.

A. 2014-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA					EUROAK MILAKOTAN	
SARRERAK	HASIER. AURREK.	ALDAK.	AZKEN. AURREK.	KITATUT. ESKUBID.	DIRU-BILK. GARBIA	KOBR. GABEA
1. Zerga zuzenak	836.376	—	836.376	879.876	832.612	47.264
2. Zeharkako zergak	1.017.562	94	1.017.656	1.069.072	944.471	124.601
3. Tasak eta bestelako sarrerak	16.076	200	16.276	34.772	14.435	20.337
4. Transferentzia arruntak	98.308	9.837	108.145	89.144	88.612	532
5. Finantza sarrerak	2.040	(95)	1.945	1.758	1.049	709
6. Inbertsio errealen besterentzea	8.636	—	8.636	624	624	—
7. Kapitalezko transferentziak	17.712	(28)	17.684	17.704	15.816	1.888
8. Finantza aktiboaren aldaketa	13.493	8.370	21.863	155	155	—
9. Finantza aktiboaren aldaketa	59.804	—	59.804	59.800	59.800	—
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>2.070.007</b>	<b>18.378</b>	<b>2.088.385</b>	<b>2.152.905</b>	<b>1.957.574</b>	<b>195.331</b>

GASTUAK	HASIER. AURREK.	ALDAK.	AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKIDOAK	EUROAK MILAKOTAN	
					ORDAINK. LIKIDOAK	ORDAIND. GABEA
1. Langileen ordainsariak	59.038	(18)	59.020	57.681	57.674	7
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontr.	45.126	2.294	47.420	45.092	38.093	6.999
3. Finantza gastuak	17.213	557	17.770	17.229	16.640	589
4. Transferentzia arruntak	1.824.522	11.486	1.836.008	1.832.990	1.815.199	17.791
6. Inber. errealak	30.298	2.222	32.520	28.216	17.973	10.243
7. Kapitalezko transferentziak	42.135	1.837	43.972	35.862	23.056	12.806
8. Finantza aktiboaren bariazioa	14.798	—	14.798	14.378	13.316	1.062
9. Finantza pasiboaren bariazioa	36.877	—	36.877	36.877	36.877	—
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>2.070.007</b>	<b>18.378</b>	<b>2.088.385</b>	<b>2.068.325</b>	<b>2.018.828</b>	<b>49.497</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>	—	—	—	<b>84.580</b>	<b>(61.254)</b>	<b>145.834</b>

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA			EUROAK MILAKOTAN	
	HASIERAKO ZORRA	BALIOG.	KOBR./ORDAIN.	AZKEN ZORRA
Zordunak	363.969	(61.894)	(144.289)	157.786
Hartzekodunak	(87.433)	228	87.107	(98)
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>	<b>276.536</b>	<b>(61.666)</b>	<b>(57.182)</b>	<b>157.688</b>

C. ZORPETZEAREN KONTU OROKORRA	EUROAK MILAKOTAN
Maileguak	449.110
Bonoak	50.000
Beste batzuk	435
<b>GUZTIRA</b>	<b>499.545</b>

D. DIRUZAINZA	EUROAK MILAKOTAN
AURREKONTUKO DIRUZAINZA	
14.1.1ean saldoa	177.308
Aurrekontu kobrantzak	2.101.863
Indarreko ekitaldia	1.957.574
Aurrekontu itxiak	144.289
Aurrekontuko ordainketak	(2.105.935)
Indarreko ekitaldia	(2.018.828)
Aurrekontu itxiak	(87.107)
AURREKONTUKO DIRUZAINZA 14.12.31n	173.236
AURREKONTUZ KANPOKO DIRUZAINZA 14.12.31n	(108.791)
<b>DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA 14.12.31n</b>	<b>64.445</b>

E. KONPROMISO KREDITUAK				EUROAK MILAKOTAN	
GEROKO GASTUAK (2015 URTE ETA GEROKOAK)	HASIERAKO KREDITUAK	ALDAKET.	ITXIERAKO KREDIT.	BAIMEND. KREDIT.	HITZARTUT.
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosk.	1.367	281	1.648	1.506	1.506
4. Transferentzia arruntak	9.057	(5.978)	3.079	3.079	3.064
6. Inber. errealak	107.775	(3.300)	104.475	10.601	7.800
7. Kapitalezko transferentziak	35.082	11.574	46.656	36.159	33.084
8. Finantza aktiboen aldaketa	—	183	183	183	183
<b>ETORKIZUNeko GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>153.281</b>	<b>2.760</b>	<b>156.041</b>	<b>51.528</b>	<b>45.637</b>
				2015. urtea	32.479
				2016. urtea	5.149
				2017. urtea	3.896
				2018. urtea	4.113

F. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZA GELDIKINA	EUROAK MILAKOTAN
AURREKONTU ARRUNTA 2014	
Eskubide kitatuak	2.152.905
Aitortutako obligazioak	(2.068.325)
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA	84.580
EKITALDI ITXIAK	
Zordunak: Eskubide kitatuak baliogabetzea	(61.894)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	228
AURREKONTU ITXIEN DEFIZITA	(61.666)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.	(30.301)
EKITALDIAREN EMAITZA	(7.387)
DIRUZAINZA GELDIKINA 13.12.31n	232.465
(Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideratzeak)	(234)
DIRUZAINZA GELDIKINA 14.12.31n	224.844
(Finantzaren doiketa) (A.7)	(82.707)
DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 14.12.31-N	142.137

DIRUZAINZA GELDIKINA	EUROAK MILAKOTAN
Diruzaintza	64.445
Aurrekontu arruntaren zordunak	195.331
Aurrekontu itxien zordunak	157.786
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak	(49.497)
Aurrekontu itxietako hartzekodunak	(98)
Aurrekontuz kanpokoak (zordunak hartzekodunetatik garbi)	108.791
Huts egindakoan homidura	(251.680)
(Elkarfinantzat. proiektuen finantzaketaren desbideratzea)	(234)
DIRUZAINZA GELDIKINA 14.12.31n	224.844
(Finantzaren doiketa) (A.7)	(82.707)
DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 14.12.31-N	142.137

G. EGOERAREN BALANTZEAK 2014 ETA 2013KO ABENDUAREN 31N				EUROAK MILAKOTAN	
AKTIBOA	2014	2013	PASIBOA	2014	2013
AKTIBO EZ ARRUNTA	1.023.475	1.061.748	ONDARE GARBIA	585.710	678.960
Ibilgetu ukiezina	15.613	16.184	Ondarea	223.574	223.574
Ibilgetu materiala	766.903	790.691	Sortutako ondarea	362.886	456.188
Erakundeetan epe luz. finantza inbertsioak talde-anitzeko eta elkartut. entitateet.	172.893	174.933	Balio aldaketagatiko doiketak (Estaldura eragiketak)	(6.127)	(5.322)
Finantza inbertsioak e/luz.	68.066	79.940	Bestelako ondare gehikuntzak emaitzetara egozteko zain	5.377	4.520
			PASIBO EZ ARRUNTA	495.761	450.322
			E/luz. zuzkidurak	7.015	—
			E/luzeko zorrak	488.746	450.322
AKTIBO ARRUNTA	278.973	234.862	PASIBO ARRUNTA	220.977	167.328
Salgai dauden aktiboak	2.100	13.920	E/lab. zuzkidurak	—	—
Izakinak	—	70	E/laburreko zorrak	64.583	68.614
Zordunak eta kobratz. bst knu bat	192.689	146.483	Hartz. & ordaintz. b.kontu batz.	69.342	98.714
Erakundeetan epe lab. finantza inbertsioak talde-anitzeko eta elkartutako entitateetakoak	16.449	3.938	Aldizkatzeagatiko doikuntzak	234	—
Finantza inbertsioak e/lab.	11.290	13.801			
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	56.445	56.650			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.302.448</b>	<b>1.296.610</b>	<b>ONDARE GARBIA GUZTIRA ETA PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>1.302.448</b>	<b>1.296.610</b>

H. 2014 ETA 2013KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUAK	EUROAK MILAKOTAN	
	2014	2013
Zerga sarrerak	1.900.213	1.853.561
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	107.100	108.659
Ekitaldikoa Transferentziak	105.960	107.846
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte	1.140	813
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea	274	299
Kudeak. arrunteko beste sarrera batzuk	16.336	16.203
Hornidura gehiegizkoak	11.297	81.614
KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	2.035.220	2.060.336
Langileria gastuak	(57.681)	(56.821)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	(1.878.165)	(1.819.701)
Kudeak. arrunteko beste gastu batzuk	(51.065)	(51.111)
Ibilgetuaren amortizazioa	(42.653)	(42.620)
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(2.029.564)	(1.970.253)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	5.656	90.083
Balio nariadura eta ibilgetu ez finantzarioa besterenganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai	(1.954)	(1.819)
Beste kontusail ez arrunt batzuk	334	1.047
Diru-sarrerak	480	1.455
Gastuak	(146)	(408)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	4.036	89.311

H. 2014 ETA 2013KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUAK	EUROAK MILAKOTAN	
	2014	2013
Finantza sarrerak	934	1.066
Finantza gastuak	(17.642)	(16.506)
Finantza aktibo eta pasiboetan arazoizko balioaren bariazioa	(2.338)	(2.823)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak	(44.406)	(125.388)
Taldeko, talde-anitzeko eta elkartutako entitateetakoak	(10.150)	(25.464)
Beste batzuk	(34.256)	(99.924)
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK</b>	<b>(63.452)</b>	<b>(143.651)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA) GARBIA (GALERAK)</b>	<b>(59.416)</b>	<b>(54.340)</b>

## V.2. Erakunde Autonomo Administrazioen Kontuak.

SARRERAK	A. 2014-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA			EUROAK MILAKOTAN		
	GOFE			GFE		
	AZKEN AURREK.	ESKUBIDE KITATUAK	DIRU-BILK. GARBIA	AURREK.	ESKUBIDE KITATUAK	DIRU-BILK. GARBIA
3. Tasak eta bestelako sarrerak	23.673	24.278	17.700	1.738	1.826	1.766
4. Transferentzia arruntak	153.672	148.359	140.225	3.882	3.882	3.673
5. Ondare sarrerak	1	—	—	—	2	2
6. Inbertsio errealak besterentzea	—	—	—	—	—	—
7. Kapital transferentziak	977	717	717	250	—	—
8. Finantza aktiboen aldaketa	235	100	100	10	1	1
AURREKONTU ARRUNTA GUZTIRA	178.558	173.454	158.742	5.880	5.711	5.442
HONDAKINAK	17.874	17.408	13.219	37	35	34
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>196.432</b>	<b>190.862</b>	<b>171.961</b>	<b>5.917</b>	<b>5.746</b>	<b>5.476</b>

GASTUAK	GOFE			GFE		
	AZKEN AURREK.	OBLIGAZIO LIKIDOAK	ORDAINK. LIKIDOAK	AZKEN AURREK.	OBLIGAZIO LIKIDOAK	ORDAINK. LIKIDOAK
	1. Langileen ordainsariak	61.797	61.491	59.540	2.496	2.419
2. Ondasun arrunt eta zerb. kontr.	78.816	76.176	70.073	2.683	2.608	2.490
4. Transferentzia arruntak	36.733	34.140	33.091	605	603	518
6. Inbertsio errealak	721	504	231	86	73	33
7. Kapital transferentziak	256	228	163	—	—	—
8. Finantza aktiboen aldaketa	235	85	85	10	5	5
AURREKONTU ARRUNTA GUZTIRA	178.558	172.624	163.183	5.880	5.708	5.465
HONDAKINAK	11.722	11.286	11.243	193	193	193
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>190.280</b>	<b>183.910</b>	<b>174.426</b>	<b>6.073</b>	<b>5.901</b>	<b>5.658</b>

B. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA	EUROAK MILAKOTAN	
	GOFE	GFE
Eskubide kitatuak	173.454	5.711
Aitortutako obligazioak	(172.624)	(5.708)
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA (1)	830	3
Eskubide kitatuak balio gabetzea	(466)	(2)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.	(800)	(1)
Obligazio aitortuak balio gabetzea	436	—
AURREKONTU ITXIEN DEFIZITA (2)	(830)	(3)
EKITALDIAREN EMAITZA (1+2)	—	—
DIRUZAINZTA GELDIKINA 13/12/31	3.000	—
DIRUZAINZTA GELDIKINA 14/12/31	3.800	1
(Nekez egingarri diren eskubideak)	(3.800)	(1)
DIRUZAINZTA GELDIKIN ERABILGARRIA 14.12.31-N	—	—



DIRUZAINZA GELDIKINA	EUROAK MILAKOTAN	
	GOFE	GFE
Diruzaintza	449	240
Aurrekontu arruntaren zordunak	14.712	269
Aurrekontu itxien zordunak	4.189	1
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak	(9.441)	(243)
Aurrekontu itxietako hartzekodunak	(43)	—
Aurrek. kanp. (hartzekodunak, zordunetarik garbi)	(6.066)	(266)
Huts egindakoen hornidura	(3.800)	(1)
DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 14.12.31-N	—	—

C. EGOERAREN BALANTZEAK 2014 ETA 2013KO ABENDUAREN 31N	EUROAK MILAKOTAN			
	GOFE		GFE	
	2014	2013	2014	2013
AKTIBO EZ ARRUNTA	25.255	25.118	3.112	2.288
Ibilgetu ukiezina	6	8	51	42
Ibilgetu materiala	24.965	24.828	3.061	2.246
Finantza inbertsioak e/luz.	284	282	—	—
AKTIBO ARRUNTA	19.839	20.358	514	554
Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	15.996	15.162	269	38
Finantza inbertsioak e/lab.	3.394	3.794	5	2
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	449	1.402	240	514
AKTIBOA GUZTIRA	45.094	45.476	3.626	2.842
ONDARE GARBIA	25.274	25.149	3.117	2.290
Ondarea	37.371	37.112	5.064	4.168
Sortutako ondarea	(12.249)	(12.110)	(1.947)	(1.878)
Balio aldaketagatiko doiketak	152	147	—	—
PASIBO EZ ARRUNTA	50	40	14	7
E/luzeko zorrak	50	40	14	7
PASIBO ARRUNTA	19.770	20.287	495	545
Taldeko, talde-anitzeko eta elkarteetako entitateekiko zorrak epe lab.	7.228	6.076	—	67
Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batzuk	12.542	14.211	360	341
Aldizkatzeagatiko doikuntzak	—	—	135	137
PASIBOA GUZTIRA	45.094	45.476	3.626	2.842

D. 2014 ETA 2013KO EKITALDIETAKO EKONOMIA-ONDARE EMAITZEN KONTUAK	EUROAK MILAKOTAN			
	GOFE		GFE	
	2014	2013	2014	2013
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	148.663	146.797	3.882	3.806
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea	23.127	22.082	1.817	1.659
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	1.004	1.049	—	—
Hornidura gehiegizkoak	3.000	2.788	—	—
KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	175.794	172.716	5.699	5.465
Langileria gastuak	(61.491)	(59.333)	(2.419)	(2.370)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	(34.368)	(34.621)	(602)	(584)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(76.439)	(76.117)	(2.630)	(2.476)
Ibilgetuaren amortizazioa	(808)	(803)	(124)	(117)
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(173.106)	(170.874)	(5.775)	(5.547)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	2.688	1.842	(76)	(82)
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa besterenganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai	447	—	—	—
Beste kontusail ez arrunt batzuk	808	508	7	6
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	3.943	2.350	(69)	(76)

D. 2014 ETA 2013KO EKITALDIETAKO EKONOMIA-ONDARE EMAITZEN KONTUAK	EUROAK MILAKOTAN			
	GOFE		GFE	
	2014	2013	2014	2013
Finantza sarrerak	—	—	1	2
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak	(4.265)	(3.153)	(1)	—
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(4.265)	(3.153)	—	2
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA) GARBIA (GALERAK)	(322)	(803)	(69)	(74)

## V.3. Sozietate Publikoen Kontuak.

EGOERAREN BALANTZEA	A. EGOERAREN BALANTZEA 2014 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N						EUROAK MILAKOTAN	
	AGA		ALDALUR ARABA		ARABAKO LANAK		ARABARRI	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013
AKTIBO EZ ARRUNTA	91.871	97.967	63	66	295	338	1.598	1.599
Ibilgetu ukiezina	15	—	—	—	287	329	1.598	1.598
Ibilgetu materiala	26.275	29.510	63	—	4	5	—	1
Ibilgetuko inbertsioak	28.176	28.749	—	66	—	—	—	—
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz.	34.457	36.908	—	—	—	—	—	—
Finantza inbertsioak e/luz.	2.948	2.800	—	—	4	4	—	—
AKTIBO ARRUNTA	40.415	45.720	18	18	1.901	2.287	1.036	1.368
Izakinak	33.489	34.812	—	—	—	—	848	848
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.	1.212	669	4	4	1.712	1.298	2	65
Taldeko eta elkartut. enpresen inberts. epe lab.	4.345	9.198	—	—	—	300	—	—
Finantza inbertsioak e/lab.	1.291	786	—	—	—	—	—	—
Aldizkakotzeak e/lab.	14	19	—	—	6	6	—	—
Eskudirua eta bestelako aktibo balioakideak	64	236	14	14	183	683	186	455
AKTIBO GUZTIRA	132.286	143.687	81	84	2.196	2.625	2.634	2.967
ONDARE GARBIA	84.707	84.035	81	84	178	(52)	1.419	1.490
Kapitala	83.004	83.004	18	18	60	60	76	76
Jaulkipen prima	9.473	9.473	—	—	—	—	—	—
Erreserbak	1.376	1.376	(1)	(1)	2	2	8	8
Aurreko ekitaldietako ondorioak	(15.909)	(7.238)	—	—	—	(234)	(192)	(145)
Bazkideen beste ekarpen batzuk	934	2.330	5	5	659	774	—	—
Ekitaldiaren emaitza	(5.513)	(12.525)	(4)	(4)	(817)	(967)	(71)	(48)
Balio aldaketagatik doiketak	—	—	—	—	—	—	—	—
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	11.342	7.615	63	66	274	313	1.598	1.599
PASIBO EZ ARRUNTA	34.491	43.109	—	—	99	—	826	826
E/luz. zuzkidurak	230	231	—	—	99	—	—	—
E/luzeko zorrak	22.500	24.650	—	—	—	—	488	488
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak epe luz.	11.761	18.228	—	—	—	—	338	338
PASIBO ARRUNTA	13.088	16.543	—	—	1.919	2.677	389	651
E/laburreko zorrak	3.356	4.481	—	—	65	794	57	114
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak epe lab.	7.128	9.589	—	—	—	—	—	—
Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk	2.604	2.473	—	—	1.854	1.883	332	537
Aldizkakotzeak e/lab.	—	—	—	—	—	—	—	—
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZT.</b>	<b>132.286</b>	<b>143.687</b>	<b>81</b>	<b>84</b>	<b>2.196</b>	<b>2.625</b>	<b>2.634</b>	<b>2.967</b>

EGOERAREN BALANTZEA	A. EGOERAREN BALANTZEA 2014 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N								EUROAK MILAKOTAN	
	KALKULU ZENTROA		F. BUESA ARENA		INDESA 2010		NATURGOLF		ARABAKO BIDEAK	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013
AKTIBO EZ ARRUNTA	97	90	—	—	11.430	11.826	1.447	1.746	181.943	166.278
Ibilgetu ukiezina	—	—	—	—	18	21	—	—	148.213	149.904
Ibilgetu materiala	—	—	—	—	11.390	11.795	1.441	1.740	70	68
Ibilgetuko inbertsioak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Taldeko eta elkar. enpr. inber.e/luz.	88	88	—	—	—	—	—	—	—	—
Finantza inbertsioak e/luz.	9	2	—	—	22	10	6	6	33.660	16.306

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2014 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N										EUROAK MILAKOTAN	
EGOERAREN BALANTZEA	KALKULU ZENTROA		F. BUESA ARENA		INDESA 2010		NATURGOLF		ARABAKO BIDEAK		
	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	
AKTIBO ARRUNTA	2.305	2.318	64	64	3.940	4.173	69	87	3.364	2.119	
Izakinak	—	—	—	—	48	55	16	16	—	—	
Merk. Zord. eta kobr. bestel. knt	2.256	2.262	7	7	2.620	3.609	41	51	372	482	
Finantza inbertsioak e/lab.	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	
Aldizkakotzeak e/lab.	—	—	—	—	—	—	4	4	2	2	
Eskud. eta b.aktibo lik. baliokide batz.	49	56	57	57	1.272	509	8	16	2.990	1.635	
AKTIBOA GUZTIRA	2.402	2.408	64	64	15.370	15.999	1.516	1.833	185.307	168.397	
ONDARE GARBIA	862	1.070	52	56	2.335	3.140	1.325	1.641	34.417	27.688	
Kapitala	808	808	200	200	4.926	4.926	4.275	4.275	43.332	43.332	
Erreserbak	3	3	—	—	—	—	5	5	1.527	1.527	
Ekitaldi itxien emaitza	—	—	(144)	(140)	(700)	(480)	(2.590)	(2.070)	(8.112)	(10.155)	
Bazkideen beste ekarpen batzuk	6.523	6.667	—	—	—	200	—	350	2.844	3.246	
Ekitaldiaren emaitza	(6.514)	(6.450)	(4)	(4)	(2.063)	(1.686)	(599)	(1.220)	13.659	(1.203)	
Balio aldatetarik doiketarik	—	—	—	—	—	—	—	—	(18.833)	(9.059)	
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.	42	42	—	—	172	180	234	301	—	—	
PASIBO EZ ARRUNTA	—	—	—	—	2.744	3.167	22	39	145.960	135.416	
E/luz. zuzkidurak	—	—	—	—	—	—	—	—	628	508	
E/luzeko zorrak	—	—	—	—	2.744	3.167	22	39	145.332	134.908	
PASIBO ARRUNTA	1.540	1.338	12	8	10.291	9.692	169	153	4.930	5.293	
E/laburreko zorrak	37	20	—	—	4.361	4.361	41	43	2.637	2.084	
Taldeko eta elkart. enpr. zorrak e/lab.	—	—	—	—	5.341	4.777	—	—	—	—	
Merk. hartzek. & ordain. best. kntu	1.503	1.318	12	8	589	554	106	88	2.293	3.209	
Aldizkakotzeak e/lab.	—	—	—	—	—	—	22	22	—	—	
<b>ONDARE GARB.&amp;PASIB. GUZT</b>	<b>2.402</b>	<b>2.408</b>	<b>64</b>	<b>64</b>	<b>15.370</b>	<b>15.999</b>	<b>1.516</b>	<b>1.833</b>	<b>185.307</b>	<b>168.397</b>	

B. 2014 ETA 2013-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK							EUROAK MILAKOTAN	
	AGA		ALDALUR ARABA		ARABAKO LANAK		ARABARRI	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013
Negozio zifratik zenbateko garbia	—	3	—	—	302	180	—	—
Amaitut. eta abian dauden produk. izakinetan aldak.	(1.323)	509	—	—	—	—	—	27
Hornidurak	(124)	(702)	—	—	—	—	(2)	(8)
Bestelako ustiaketa sarrerak	1.105	1.048	—	—	296	905	58	—
Langileria gastuak	(483)	(468)	—	—	(721)	(812)	—	—
Bestelako ustiaketa gastuak	(1.551)	(9.196)	(4)	(4)	(691)	(1.145)	(104)	(49)
Ibilgetuaren amortizazioa	(3.546)	(3.423)	(2)	(2)	(44)	(49)	(1)	(1)
Ibilg.ez finantz. eta bestel. diru-lag. egozteak	1.947	1.947	2	2	40	39	—	1
Ibilgetua besterenganat. narriadura eta emaitza	165	(49)	—	—	—	—	—	—
USTIAPENAREN EMAITZA	(3.810)	(10.331)	(4)	(4)	(818)	(882)	(49)	(30)
EMAITZA FINANTZARIOA	(1.703)	(2.194)	—	—	1	(85)	(22)	(18)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(5.513)	(12.525)	(4)	(4)	(817)	(967)	(71)	(48)
Mozkinen gaineko zerga	—	—	—	—	—	—	—	—
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(5.513)</b>	<b>(12.525)</b>	<b>(4)</b>	<b>(4)</b>	<b>(817)</b>	<b>(967)</b>	<b>(71)</b>	<b>(48)</b>

B. 2014 ETA 2013-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK										EUROAK MILAKOTAN	
	KALKULU ZENTROA		F. BUESA ARENA		INDESA 2010		NATURGOLF		ARABAKO BIDEAK		
	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	
Negozio zifratik zenbateko garbia	2.938	3.435	—	—	10.264	9.790	468	491	6.226	5.903	
Izakin barietateko amaitut. eta indarreko prod.	—	—	—	(7)	12	—	—	—	—	—	
Hornidurak	—	(2.853)	(3.351)	—	—	(1.398)	(1.132)	(13)	(10)	—	
Bestelako ustiaketa sarrerak	—	—	—	—	3.145	3.042	20	22	—	4	
Langileria gastuak	(6.553)	(6.438)	—	—	(11.114)	(10.472)	(206)	(228)	(173)	(164)	
Bestelako ustiaketa gastuak	(47)	(97)	(4)	(4)	(2.255)	(2.319)	(616)	(688)	(3.402)	(3.792)	
Ibilgetuaren amortizazioa	—	—	—	—	(573)	(477)	(143)	(146)	(3.940)	(3.873)	
Ibilg.ez finantz. eta bestel. diru-lag. egozteak	—	13	—	—	20	20	68	145	—	—	
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	—	9	10	(175)	(803)	—	—	—	—	—	

B. 2014 ETA 2013-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK									EUROAK MILAKOTAN	
	KALKULU ZENTROA		F. BUESA ARENA		INDESA 2010		NATURGOLF		ARABAKO BIDEAK	
	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013
Beste emaitza batzuk	—	—	—	—	—	—	—	—	1.968	—
USTIAPENAREN EMAITZA	(6.515)	(6.438)	(4)	(4)	(1.909)	(1.526)	(597)	(1.217)	679	(1.922)
EMAITZA FINANTZARIOA	1	(12)	—	—	(154)	(160)	(2)	(3)	12.980	719
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(6.514)	(6.450)	(4)	(4)	(2.063)	(1.686)	(599)	(1.220)	13.659	(1.203)
Mozkinen gaineko zerga	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(6.514)</b>	<b>(6.450)</b>	<b>(4)</b>	<b>(4)</b>	<b>(2.063)</b>	<b>(1.686)</b>	<b>(599)</b>	<b>(1.220)</b>	<b>13.659</b>	<b>(1.203)</b>

## VI. Iruzur fiskalaren aurkako borroka plana eta ikuskaritza plana 2014-ko ekitaldirako

2013ko irailaren 26an, Eusko Legebiltzarraren Osoko bilkurak, besteak beste, 6. Ebazpena onartu zuen, zeinak beharrezko ebazten duen Zergak Koordinatzeko Organoaren baitan Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako batzordea sortzea, hiru lurralde historikoek eta Eusko Jaurlaritzak elkar hartuta iruzurraren aurkako plan bateratua mamitu dezaten.

Zergak Koordinatzeko Organoak batzorde hori 2013ko urriaren 14an sortu zuen. 2014ko martxoaren 30ean, berriz, Batzordeak 2014ko urterako Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako Plan Bateratuaren irizpide orokorrak onartu zituen.

### VI.1. Iruzur fiskalaren aurkako borroka plana.

Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusien Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, HKEEK 2014rako Iruzurraren aurkako borrokarako plana eta Ikuskaritza plana aztertu ditu, Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako plan bateratua aplikatu den lehenengo ekitaldia.

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako plan bateratuak 2014ko ekitaldirako honako jarduera hauek aurreikusi ditu:

1. Informazioa eskuratzeko ekimenak
2. Prebentzio ekintzak
3. Arautzeko eta kobratzeko jardunak.

Arabako lurralde historikoaren 2014ko martxoaren 31ko aldizkari ofizialak martxoaren 25eko 659/2014 Ebazpena argitaratu zuen, Ogasun Zuzendariarena, 2014ko urterako Arabako lurralde historikoaren Iruzurraren kontrako borrokarako planaren berri ematen duten irizpide orokorrak argitara ematen dituena.

Ebazpen horrek zera jasotzen du:

1. Zergadunek zerga betebeharrak borondatez beteko dituztela sustatzera bideratutako ekintzak
2. Foru Ogasuneko zerbitzuen balioa eta haiekiko konfiantza areagotzeko ekintzak.
3. Iruzurra aurreikusi eta antzemateko ekintzak.
4. Jarduera iruzurgileak antzeman eta arautzeko ekintzak.
5. Diru-bilketarako ekintzak.

Arabako lurralde historikoaren Plana xehetasunez aztertu ondoren, Plan Bateratuaren irizpideak modu egokian jaso dituela ondorioztatu da.

### VI.2. 2014-ko ikuskaritza plana.

2013ko abenduaren 16an Ogasun zuzendariak Ikuskaritzako lan-zama arrunten plangintza onartu zuen. Plangintza horrek ikuskari talde bakoitzak itxi beharreko 2014ko eta lehenagoko urteetako espedienteen aurreikuspena besarkatzen du.

	ESPEDIENTE KOPURUA
Ikuskariak	1.800
Eragileak	1.070
Teknikariak	65

Espedienteak ikuskaritzako plan nagusikoak eta AFAko beste alor batzuetako ekimenetakoak eta beste administrazio batzuetakoak dira.

Gainera, Plangintzak honako berariazkotasun hauek jasotzen ditu:

a. AFAREN alde aitortu beharreko zerga-zorra

	EUROAK MILIOIKOTAN
Ingresatzeko aktak	25
Kudeaketa arrunta	25
Aparteko kudeaketa	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>55</b>

b. Ezkutuko ekonomiako espedienteak berrikustea

	ESPEDIENTE KOPURUA
Ikuskariak	40
Eragileak	50

c. Egiatzaketa informatikoak

	ESPEDIENTE KOPURUA
Ikuskariak	150
Eragileak	60

2014ko Ikuskaritza plana Arabako Lurralde Historikoaren Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako planaren eta Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako plan bateratuaren gidalerroen ondorio da.

2014ko uztailaren 26an Ogasun zuzendariak 2014ko ikuskaritzako plan nagusia onartu zuen eta bertan zehazten dira Ikuskaritza Zerbitzuak aztertu beharko dituen urte horretako espedienteak:

	ESPEDIENTE KOPURUA
Ikuskariak	221
Eragileak	50
<b>GUZTIRA</b>	<b>271</b>

Plana langile kategorien arabera xehatzen da

a. Ikuskarrien plana

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako planean aurreikusitako jardueren jarraipen banakakoa bideratzeko, ikuskaritza taldeen identifikazioa berritu da eta honako talde berri hauek sortu dira:

11 Aitortzaileak

12 Sozietateak

13 Jarduera ekonomikoa duten aitortzaileak

14 Jarduera ekonomikorik ez duten aitortzaileak

15 Aldian behingo zergapekoak

16 Arriskuko zergadunak

eta horietako bakoitzean aztertuko diren zergapekoen hautaketarako baliatu beharreko irizpideak azaldu dira. Irizpide horiek lruzur fiskalaren kontrako borrokarako planean jasotakoak dira.

b. Enpresa handien ikuskaritza unitatearen berariazko plana

Egin beharreko jardunak honako hauek dira:

	ENPRESA KOPURUA
Aldian behingo bilerak	20
Egiaztaketa-lan orokorra	4
Transferentzia aurretikoak egiaztatzea eta aurretiko balorazio erabakiak	3
Eragiketen bolumena egiaztatzea	1
Oinarri negatiboak egiaztatzea	1
Dibisen trafikoa egiaztatzea	1

c. Eragileen plana

Egin beharreko jardunak honako hauek dira:

Ez aitortzaileak

Huts egindakoak

Batasun barruko operadoreen erregistroaren erroldan mugimenduak

Hileroko Itzulketen Erregistroaren erroldan mugimenduak

Ostalaritzako salmenten kontrola egiaztatzeko plana

Zergadunei inkesta

Bisita selektiboa

Informazioaren analisia

Egiaztaketari uko egiten diotenen kudeaketa

d. Teknikarien plana

Zerga zorraren egiazko kobrantzara bideratutako erantzukizun-bideratzeen analisia.

e. Zerga berezien artekaritza

Kontabilitateak baimentzea.

Bulego kudeatzaileari babesa

Ekitaldi itxieran urtean zehar itxi diren espediente-zenbakien jarraipen-taula mamitzen da.

	ESPEДИENTE KOPURUA	
	AURREIKUSIA	EGIAZKOA
Ikuskariak	1.800	1.909
Eragileak	1.070	1.511
Teknikariak	65	40
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.935</b>	<b>3.460</b>

2014an Arabako Foru Aldundiaren alde aitortutako zerga zorra honakoa izan da:

	EUROAK MILIOIKOTAN	
	AURREIKUSIA	EGIAZKOA
Ingresatzeko aktak	25	26,8
Kudeaketa arrunta	25	36,2
Aparteko kudeaketa	5	27,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>55</b>	<b>90,6</b>

Ezkutuko ekonomiako espedienteak berrikustea

	ESPEDIENTE KOPURUA	
	AURREIKUSIA	EGIAZKOA
Ikuskariak	40	60
Eragileak	50	2

Egiaztaketa informatikoak:

	ESPEDIENTE KOPURUA	
	AURREIKUSIA	EGIAZKOA
Ikuskariak	150	98
Eragileak	60	19

VI.3. Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren txostena, 2014.

Arabako Foru Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuak «Iruzuraren aurkako borroka» izeneko atala besarkatzen du, 4.a, eta bertan, helburu hori jomuga hartuta 2014ko ekitaldian gauzatutako ekintzak deskribatzen dira.

Txostenaren edukia honakoa da:

1. AFaren alde sortutako zorra Arabako Foru Ogasunaren zerbitzuen kudeaketagatik:

	EUROAK MILAKOTAN
Zergen ikuskaritza-zerbitzuaren jardunak	90.532
Zerga-kudeaketako zerbitzuen jardunak	53.073
<b>GUZTIRA</b>	<b>143.605</b>

2. Zergen ikuskaritza-zerbitzua

Txostenaren iritzira, zergen ikuskaritza zerbitzuaren ekintzen bitartez azaleratu den zenbatekoa, 90,5 milioi euro, zerga iruzurraren kontrako borrokaren ondorio da. Berariazko plan bat izateak ez du bereizteko eskatzen zergen ikuskaritza zerbitzuaren ohiko jardueretatik eratorritako diru-kopuruak eta Iruzuraren kontrako borrokarako planean jasotako neurriak baliatuz eratorritako haiek. Ikuskaritza plana bideratzen duten irizpideak aldatu dira.

Gainerako jardueri dagokienez, Kontrol hautakor orokorra eta Egiaztaketa informatikoak, alegia, txostenak orokortasunez jasotzen ditu ekintzak, datu objektiborik eman gabe.

3. Iruzurra aurreikusi eta antzemateko ekintzak

Alorren arabera gauzatutako ekintza kopurua zehazten da

- Batasun barruko operadoreen erregistrora sartzeko eskabideen kontrola: 401 ekintza.
- Hileroko itzulketen erregistrora sartzeko eskabideen kontrola: 41 jarduketa.
- Alta, aldaketa eta bajako errolda aitopenetan datuen egiazkotasunaren kontrola. Ez da jarduketa kopurua aipatzen.
- Aitorpen informatiboak aurkezteko obligazioa bete izanaren kontrola. 2.679 jarduketa.

## 4. Zergadunaren ezagutza sakona.

Jarduketen deskribapen orokorrak baizik ez ditu besarkatzen.

## 5. Informazioa trukatzeko jarduketak.

– 2014ko ekitaldian Bizkaia eta Gipuzkoako foru ogasunekin informazioa trukatzeko hitzarmenak izenpetu dira. Berebat, Zerga Agentziarekin eta Nafarroako Foru Ogasunarekin kudeaketak bideratzen hasi dira lurralde historikoen artean adostutako hitzarmenaren antzekoa gauzatzeko lehenengo kasuan, eta aldatzeko bigarrenean.

– Batzordea osatu da foru ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariarekin, zerga ondorioak dituzten datuak elkartrukatzeko.

– Orokortasunez eskatzen diren aitorten informatibo berriak onartu dira. Bereziki, 20R ereduak onartu da, informazio trukeak errazago egiteko. Berebat, 347 eredu-orria ere aldatu da (hirugarrenetik eragiketen urteko aitortpena), aurkezteko obligazioa duten subjektu berriak barne hartuz, eta 3.005,06 euroren gutxienerako muga kendu da diru-laguntza, sorospen edo laguntza publikoak jasotzen dituzten onuradun guztiek aitortpena egiteko obligazioa izateko.

## 6. Jarduera iruzurgileak antzeman eta arautzeko ekintzak.

– Justifikatu gabeko ondare irabaziak egiaztatzea. 11 ekintza gauzatu dira eta horietatik 1.253.014 euroren zerga zorra eratorri zen.

– Jarduera ekonomikoak egiten dituztenek aurkeztu beharreko aldi behingo aitortpenen kontrola.

– Arrisku fiskala duten eragiketak egiaztatu eta ikertzea. 7 ekintza gauzatu dira eta horietatik 2.436.683 euroren zerga zorra eratorri zen.

– Jarduera ekonomikoa duten sektore jakin batzuen kontrola.

116 ekintza gauzatu dira, 4.628.987 euroren zenbatekoan. Horietatik 3, 686.070 euroren zenbatekodunak, 170 eredu-orriaren aitortpenak emandako informazioa abiaburu hartuta gauzatu dira (txikizkako merkataritzaren saltokiko terminala) eta 112, 3.841.039 euroren zenbatekodunak, arrisku fiskal handiko sektoreetan jasotako zergapekoen egiaztaketek dagozkien.

## 7. Diru-bilketarako ekintzak.

27 ekintza gauzatu dira eta horietatik 284.786 euroren zerga zorra eratorri zen.

Bestetik, nahiz Txostenak ez dituen giza eta teknikazko dotazioen ekintzak barne hartzen, 2014rako aurrekontuaren likidazioaren arabera, 2014ko Iruzuraren kontrako borroka programak honako gastu egikaritzea hau izan du:

	EUROAK MILAKOTAN
Informatikako auditorien zerbitzua	100
Langileriaren prestakuntza	20
Zergak kudeatzeko informatikako programak	469
Informatika fiskalean berrikuntzak eta hobekuntzak	389
<b>GUZTIRA</b>	<b>978</b>

## Ondorioak

1. ALHren 2014ko Iruzuraren kontrako borrokarako plana Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako plan bateratuan jasotako irizpideei egokitzen zaie.

2. 2014ko ekitaldirako Ikuskaritzea Plana mamitzeko irizpideak zuzentasunez egokitzen zaizkie ALHn Iruzuraren kontrako borrokarako planak finkatutako irizpideei.

3. Honakoa izan da nagusiki Iruzuraren kontrako borrokarako planaren eragina Zerga ikuskaritzako jardueren gainean:

a) Beste zerga administrazio batzuekin informazioa partekatzea.



- b) Zerga-figurekin loturiko informazioa hobetu eta zabaltzea.
  - c) Ikuskaritzako Urteko Plana mamitzeko baliatzen diren irizpideak birbideratzea, Iruzzurren kontrako borrokarako planari egokitzearen.
4. Ikuskaritza Zerbitzuak zuzentasunez betetzen ditu 2014ko Ikuskaritza Planean jasotako helburuak.
5. Iruzzurren kontrako borrokarako txostenari dagokionez, ondorio hauek atera daitezke:
- a) Deskribapenek orokorrean adierazten dute bete direla 2014rako ALHren Iruzzurren kontrako borrokarako planaren helburuak. Planak ez zuen helburuak betetzeari buruzko adierazlerik; ez eta horren egikaritzari buruzko txostenak ere.
  - b) Gauzatutako jardueri buruzko datu zehatzek, 3 eta 6 ataletan xehetasunez jasotakoek, ez dute alor horietan Planaren helburuen betetze maila balio-neurtzeko balio, ez baitzegoen gauzatu beharreko jarduera kopuru zehatzaren balioespenik.
  - c) Bizkaia eta Gipuzkoako foru ogasunekin hitzarmenak gauzatzeko helburua bete da.
  - d) Adierazpen informatibo berri bat onartu eta beste bat aldatu da, ondorioz informazioa eta elkartrukea hobetuz.

#### ALEGAZIOAK, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2014-KO FISKALIZAZIO-LANAREN EMAITZEI DIPUTATU NAGUSI-OHIAK JARRITAKOAK

2014ko ekitaldiko Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren inguruan HKEEK egin-dako Txostena dela-eta, aurreko Foru Gobernuari (2011-2015) dagozkion alegazioak aurkezten dira, ondokoak alegia.

Edozein modutan ere, eta alegazioetan agertzen ez diren alderdiei dagokienez, bat egiten dugu Arabako Foru Aldundiak aurkezten dituenekin.

### II. Iritzia

#### II.1. Legea betetzeari buruzko iritzia.

##### II.1.2. Sozietateak.

4. 2013ko urriaren 18an, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Arabako ordezkariak salaketa bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzan Arabako Lanak SAren aurka.....»

#### Alegazioa

Lehiaren Euskal Agintaritzak AFARI 50.000 euroko isuna eta zenbait Toki Erakunderi 15.000 euroko isuna jarri ziola jaso du HKEEK. Ez dela IRITZIA atalean jaso behar uste dugu; zigorraren ordainketa osteko ekintzetan jaso beharko litzateke, ordainduta baitago.

#### II.2. Kontuei buruzko iritzia.

2014ko Kontu Orokorrean AFAR aurkezten duen diruzaintza-geldikina 54 milioi eurotan murriztu beharko litzateke ondoko doikuntzen ondorioz.....

#### Alegazioa

Ezin gara ados egon HKEEK Diruzaintza-geldikinaren inguruan proposatzen dituen doikuntzekin. Izan ere, 10,9 milioi euroko doikuntza negatibotzat jo du, zenbateko hori ez delako AGA foru Sozietate publikoari igorri; baina hori ez da aurrekontu-gastu bat eta, hortaz, ez du geldikinean doikuntzarik sortzen.

Hala ere, eta berme handiagoa izatearren, erabilera libreko geldikin-erreserba egin zen. Are gehiago, AFAR bere AGA sozietateari kreditu-konpromisoei aurre egiteko beharrezkoak dituen kopuruak transferitu dizkio.

Bestalde, egiteke dagoen TEPEF doikuntzari dagokionez, 43,6 milioi eurokoa, Gure ustez, ez da egokia, 17/2011 Foru Arauaren bidez funtsa berreskuratzeko epe bat finkatu baitzen, TEPE-Fren ehuneko 2ko kentzea urtero eta 10 urteko eperako jasota baitago. Edozein modutan ere, erabilera libreko geldikin-erreserba egin zen bermatuta ez dagoen kopuruagatik hamar urteko epearen amaieran.

Gure iritzian eraginik izan gabe, arreta deitzen dugu jarraian aipatzen diren alderdien inguruan:

#### Arabako Foru Aldundia

– Ekitaldia itxitakoan, estatuaren administrazioekiko finantza-harremanei, Kupoa zehazteko metodologia onartzeari buruzko urriaren 25eko 29/2007 Legearen ondoriokoei, dagokienez, EAeko Administrazio Orokorrek zenbait desadostasun ditu Estatuaren Administrazio Orokorra-ekin.... Ez dakigu zer eragina izango duen desadostasun horien ebazpenak AFaren kontuetan.

#### Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

– Ekitaldia itxitakoan, estatuaren administrazioekiko finantza-harremanei, Kupoa zehazteko metodologia onartzeari buruzko urriaren 25eko 29/2007 Legearen ondoriokoei, dagokienez, EAeko Administrazio Orokorrek zenbait desadostasun ditu Estatuaren Administrazio Orokorra-ekin.... GOFeren kontuetan 5,1 milioi euroko kobratzeko saldoa jaso dute.... AFaren kitapenak zenbateko horretako Diruzaintza-geldikina jaso du.

#### Alegazioa

Aipatzekoa da AFA erreserba bat egin zuela dagoeneko Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 31ko 159/2015 Erabakiaren bidez, eta ondokoa xedatu zuen: «Bederatzigarrena. diruzaintza-geldikinaren kreditu doituaren erreserba onestea, 122.919.346,31 eurotan guztira». Hori dela eta, kasu hori jaso zuen kreditu-erreserba baten bidez, eta finantza-bermea eman zien desadostasun biei, AFaren kontuetan eraginik izan ez dezaten.

### III. Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak.

#### III.1. Arabako Foru Aldundia.

##### III.1.1. Aurrekontua eta kontabilitatea.

#### Alegazioa

Errepide-sarearen Zaintza Osoari dagokionez, HKEEren ustez konpromiso-kredituak dira eta urte anitzeko gastuen egoeran jaso beharko lirateke. Gogoratu beharra dugu ondoz ondoko tarteetako gastuak direla, eta 53/1992 Foru Arauaren 55. artikulua xedatzen duela ez direla konpromiso-kredituen egoeran sartuko izaera iraunkorra duten gastuak eta ondoz ondoko tarteetakoak.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen Aurrekontu Orokorrei buruzko txostenean, ez dira aurrekontuetan kontzeptu horiek jaso konpromiso-kreditu gisa. Hori dela eta, eta hiru Lurralde Historikoen artean fiskalizatzeko irizpideetan homogeneotasuna izateko, txostenean aipamen hori kendu beharko litzatekeela uste dugu.

Aparteko ordainaren inguruan dauden erabilgarritasunaren mugei buruz azaldutakoa dela-eta, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Foru-Dekretuaren aplikazioari dagokionez, 2012 eta 2013ko ekitaldien itxieran zegoen egoera bera da. Ekitaldi horietan Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ez zuen horren inguruko gabeziarik azaldu, eta irizpide hori erabili du Arabako Foru Aldundiak 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorra egiterakoan; hori dela eta, HKEEek irizpideak aldatu dituela ulertzen dugu.

Hala ere, gogoratu beharra dago Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 31ko 159/2015 Erabakiaren bidez ondokoa xedatu zela: «Bederatzigarrena. diruzaintza-geldikinaren kreditu doituaren erreserba onestea, 122.919.346,31 eurotan guztira». Zenbateko horretan, aparteko ordaina egiteko erreserba jaso da.

### III.1.2. Zerga diru-sarrerak.

#### – Zatikapenak eta gerorapenak:

Egindako gerorapenen bidez, ikusi dugu ondoko zatikapenak egin direla eta horien interes-tasak arautetan araututakoak ehuneko 5) baino txikiagoak izan direla, eta epeak ere arauan jasotakoak (11 hilabete) baino luzeagoak izan direla; gainera, ez da bermerik eskatu.

- Diputatuen Kontseiluaren 217/2014 Erabakiak bi zergadunei zatikapenak eman dizkio, 18 hilabeterako eta ehuneko 1eko interes-tasarekin, 838.603 euroko zorreatatik.

- Diputatuen Kontseiluaren 235 eta 738/2014 Erabakiaren bidez, AFAk 20,5 milioi euroko zatikapenak eman ditu, guztira 21 zergadunei; interes-tasa ehuneko 1koa izan da eta 4 eta 9 urte bitarteko epeetarako eman ditu (gehi bi urteko gabezia epemugatik).

- Diputatuen Kontseiluaren 596/2014 Erabakiaren bidez enpresa-talde bateko bi entitateri 18,2 milioi euroko zatikapena eman zaie. Kopuru horretatik, 10,6 milioi euro 2012 eta 2013ko Diputatuen Kontseiluaren Akordioan atzeratutako birfinantzatzek dira; interes-tasa ehuneko 0,5 izan da eta 8 urteko eperako zatikapena da (gehi hiru urteko gabezia). Gainera, 17,4 euroko zorra duen entitateari ehuneko 1eko berandutze-interesa aplikatu zaio.

#### Alegazioa

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2013ko ekitaldiaren inguruan HKEEk egindako txostenean, gai horren inguruan ondokoa aipatzen da:

2013. ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiak 40.623 zerga-zor atzeratzeko baimena eman zuen guztira 492,7 milioi euroren zenbatekoan. Gerorapen guztietatik, 203 espediente hogeita hamar zergaduni eman zaizkie, guztira 134,6 milioi euroren zenbatekoan, ehuneko 0 eta ehuneko 4 bitarteko interes tasarekin; Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren 1/2013 Foru Arauan, ordea, 2013rako ehuneko 5eko interes tasa zegoen ezarrita. Gerorapen hauek abenduaren 29ko 5/2006 Aurrekontuko Foru Arau Orokorren 21.2 artikuluari jarraiki eman dira; FA honek zera dio: «Ogasun eta Finantza Sailean buru denak baldintza bereziak aitortu ahal izango ditu geroratutako zerga zorren eta zuzenbide publikoko gainerakoen gainkargu eta interesei dagokienez, inguruabarrek hala egitea aholkatzen dutenean». Badira epaiak, euren zuzenbideko oinarrietan gerorapenetan ezarri beharreko interesei dagokienez baldintza bereziak emateko aukera onartzen dutenak batetik eta bestetik, zerga zorretan berandutza interes tipo ezberdinak ezartzeko ezintasuna babesten dutenak.

Aurrekontuen Foru Araua Orokorrean aurreikusitako baldintza berezien aplikaziorako prozedura bat garatu beharko zela uste dugu.

Halaber, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2013ko ekitaldiaren txostenean, gai horren inguruan ondokoa aipatzen da:

GFAk 21.374 zerga zor atzeratzeko baimena eman zuen 2013. ekitaldian, guztira 258,4 mila euroren zenbatekoan. Gerorapen guztietatik, 14 espediente, 5,4 milioi euroren zenbatekoan, ehuneko 0,54 eta ehuneko 0,96 bitarteko interes tasarekin eman dira; Gipuzkoako Lurralde Historikoaren abenduaren 27ko Aurrekontu Orokorren 12/2012 Foru Arauan, ordea, 2013rako ehuneko 5eko interes tasa zegoen ezarrita. Gerorapen hauek GLHaren martxoaren 8ko 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 64.8 artikulua baliatuta eman dira, zeinak onartzen duen Diputatuen Kontseiluak inguruabar apartekoak edo guztien intereseko arrazoiak daudenean ordainketen zatikapen edo gerorapenak eman ditzakeela, kasu bakoitzean erabakitako baldintzetan. Badira epaiak, euren zuzenbideko oinarrietan gerorapenetan ezarri beharreko interesei dagokienez baldintza bereziak emateko aukera onartzen dutenak eta beste epai batzuk, aldiz, zerga zorretan berandutza interes tipo ezberdinak ezartzeko ezintasuna babesten dutenak.

Komenigarria litzateke zerga zorren zatikapen edo gerorapenari baldintza bereziak ezartzeko prozedura garatzea, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 64.8 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.

HKEEk egindako txostenean agertzen diren paragrafoak, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako 2013. urteko Kontu Orokorrei buruzkoak, bat datoz, baina Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrenak desberdinak dira.

Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, 64.5 artikuluan, Arabako Foru Aldundiari zerga-zorrek ordaintzeko gerorapenak eta zatikapenak baimentzeko aukera ematen dio, Kasu bakoitzean erabakitzen diren baldintzekin, zenbait egoera berezi edo interes publikoko arrazoi badaude, hizpide ditugun kasuetan bezala.

Are gehiago, otsailaren 27ko 4/2012 Foru Arauaren bidez, 3/2012 Zerga Premiazko Araugin-tzako Dekretua baliozkotu zen. Dekretu horren artikulua bakarrak ondokoa xedatzen du:

«1. Zorrek ordaindu beharrean daudenek diruzaintzako aldi baterako arazoak frogatzen baidituzte, ekonomia jardueraren bideragarritasuna edo langileen lanpostuak kinka larrian izanik, Foru Aldundiak zorrek zatikatze edo geroratze baimena eman dezake, kasu bakoitzean erabakitzen dituen baldintzetan.

2. Aurreko 1 idatz zatian aipatzen diren baldintzak geroratzearen edo zatikatzearen edozein elementuren gainekoak izan daitezke: prestazio erantsia, bermeak edo epeak.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 25. artikulua zerga-betebehar osagarriak ondokoak dira: «berandutza-interesak ordaindu beharra, epez kanpo aurkeztutako aitorpenen gaineko errekarua ordaindu beharra eta ordainarazpenaldiko errekarua ordaindu beharra, baita foru arau bidez ezartzen diren gainerako guztiak ere».

Azaldutakoaren arabera, tratamendu koherentea eta azaldutakoarekiko homoginoa eman beharko zitzaion hiru Lurralde Historikoetan, proposamen berdinen aurrean desberdintasunak gerta ez daitezken. Horrez gain, uste dugu lege-esparruan jasota daudela gerorapenen eta zatikapenen prozedurak: Arabako Zergei buruzko 6/2005 Foru Araua eta 4/2012 Foru Araua.

Diputatuen Kontseiluaren 293/2014 Erabakiaren bidez, AFAk enpresa-talde bateko 17 enpresari zatikapena eman die, 5,5 milioi eurotako. Kopuru horretatik, 2,2 milioi euro aurreko ekitaldietako birfinantzatzak dira, eta 2,5 milioi euro hirugarrenengoak exekutiboan duen zorrari dagokio. Epea hiru urtekoa da; hortaz, arauan jasotako epea gainditu da.

Diputatuen Kontseiluaren 725/2014 Erabakiaren bidez, AFAk zordun bati 7,5 milioi euroren gaineko zatikapena eman dio; kopuru horretatik, 5,1 milioi euro aurretik atzeratutako eta zatikatutako zorrek dira; 5 urteko eperako eman ditu, hortaz, arauetan finkatutako epea gainditu da eta ez da bermerik aurkeztu.

#### Alegazioa

Aurreko paragrafoen inguruan ohar bera egin behar dugu, arautzen duen Arauak (6/2005 FAren 64. art) eta 4/2012 Foru Arauak hala ahalbidetzen baitute, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien antzeko kasuetan ez da halakorik jaso txostenetan. Hori dela eta, eta 2013. urteko eta aurreko urteetako Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen Kontu Orokorren inguruko txostenekiko homogenezasuna dela-eta, paragrafo horiek kendu beharko lirakeela uste dugu.

— Ekitaldia itxitakoan, BEZ itzultzeko bi eskaera daude, bi zergadunek egindakoak, eta 3,3 milioi eurotako. Ez dira ebatzi eta sei hilabete baino gehiagoko antzintasuna dute. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 31.2 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, kitapen horien zenbatekoak eta berandutze-interesak ordaindu behar dira.

#### Alegazioa

Zerga-helbidea Araban ez duten baina eragiketa-bolumenaren arabera Foru Lurralde honetan zergak ordaintzen dituzten bi enpresek egindako itzulpen-eskaerak dira.

Kasu horietan, AFAk ez du ikuskatzeko eskumenik eta, Ekonomia Itunean aurreikusitako arauak aplikatuz, eskatzaileari eskatzen zaio egiazta dezala eskumena duen Administrazioak egin dion benetako itzulpena, ikustearren itzulketa eskatutakoari dagokion edo doikuntzarik egin den. Ikuskaritza eskumena duen Administrazioak egin duen itzulketaren ezaugarriak egiaztatuta, AFAk dagokion itzulketa egiteari ekin dio baldintza berberekin. Tramitazio hori luzea da, ikuskaritza-eskumena duen Administrazioak egin dion itzulketa egiaztatu behar baitu eskatzaileak. Tramite hori bete ondoren, bi itzulketa-eskera izapidetu ziren.

### III.3. Gazteriaren Foru Erakundea.

#### III.3.1. Langile-gastuak.

Txandakatzeko-kontratuaren bidez egindako hiru kontratazioetan ez dira behar bezala zehaztu kasu bakoitzaren ez-ohiko egoerak edo atzeratu ezin diren eta premiazkoak diren beharrak, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-Dekretuaren 3.2 artikularekin, eta 2014. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 22/2013 Legearen 20.2 artikularekin bat etorri.

#### Alegazioa

Txandakatzeko-kontratuaren bidezko kontratazioek ez dute gastu handiagorik sortzen; hori dela eta, gure ustez, ez du eraginik defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-Dekretuaren 3.2 artikuluan, ezta 2014. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 22/2013 Legearen 20.2 artikuluan ere.

Dena dela, 2013ko ekitaldian eta 2014. urtean alegazio bera jaso zen. Aldi baterako lan-kontratudun langileak kontratatzeke ez-ohiko egoeren justifikazioak bereizi dira.

### III.4. Foru Sozietate Publikoak.

#### III.4.1. Langile-gastuak.

Indesa 201, SMko aldi baterako langileak kontratatzeke espedienteek ez dute zehaztu kasu bakoitzaren ez-ohiko egoerak edo atzeratu ezin diren eta premiazkoak diren beharrak (2014. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 22/2013 Legearen hogeigarren xedapen gehigarria).

#### Alegazioa

Foru Sozietate publiko bat da, eta desgaitasunak dituzten pertsonak lanean ahalik eta gehien txertatzea du helburu. Beraz, ez daude ekoizpen-inguruabar hutsak.

## IV. Finantza-azterketa

### Diruzaintza-geldikina eta zorpetzea

#### Alegazioa

HKEEk ondorioztatu du aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko Txostena, kontu orokorrean jasotakoa, Estatuaren Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusira eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentera bidali zela, eta horiek ez zutela salbuespenik adierazi.

Gure ustez, informazio erabilgarriagoa, osoagoa eta homogeenagoa litzateke, Organo horrek gai horren inguruan 2013. ekitaldiaren inguruan egindakoa, 2013. ekitaldian AFAk 27,5 milioi euroko finantzaketa-beharra aurkeztu zuela esan zuzenean.

Jasotakoarekin bat etorri, 2014ko ekitaldiko Kontuari buruzko txostenak jakinarazi beharko luke AFAk 15,8 milioi eurotako superabita aurkeztu zuela.

Horrez gain, diruzaintza-geldikina handitu zen (baita HKEEk proposatutako doikuntzekin ere) 21,6 milioi eurotan, hau da, diruzaintza-geldikina ehuneko 32,7 hobetu zen.

Zorpetzeari dagokionez, ezin dugu ahaztu zorpetze garbiaren ildo murriztu dela; 2012an 84,04 milioi eurokoa zen, 2013. urtean 32,53 milioi eurotako zen eta 2014an 21,89 milioi eurotako. Hortaz, zorpetze garbia ehuneko 32,8 murriztu da.

Era berean, HKEEk ondorioztatu du AFAREN finantza-egoera 2014. urtean, aurreko ekitaldi-koaren antzekoa dela. Ez gaude ados horrekin.

Baieztapen horrek zalantza handiak sortzen ditu 15,8 milioi eurotako superabitaren emaitza, diruzaintza-geldikina 21,6 milioi eurotan hobetu dela eta zorpetze garbiaren maila ikusita.

## ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2014-KO EKITALDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI JARRITAKO ALEGAZIOAK

### II. Iritzia

#### II.1. Legea betetzeari buruzko iritzia.

##### II.1.1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

GOFEk 3 hornidura eta 3 zerbitzu kontratatu ditu guztira 836.114 euroren zenbatekoan, ezar-garriak zaizkion prozedura ireki eta/edo publikitadedun negoziatua saihestuta.

#### Alegazioa

Ez dago bat etortzerik HKEEren adierazpenarekin, zeinaren arabera kasu hauetan guztietan alde batera utzi baita aplikatu behar den kontratazio prozedura, hornidura eta zerbitzu hauei lotutako gastua gertatu den inguruabarren analisisian erakusten denez:

– Ikastaroak eta tailerrak:

Kontrataziorako indarreko araudiaren arabera izapidetu behar zen kontratazio espediente-  
tea ebazteko irizpidea hau pentsatzea izan da: egoitza zentro bakoitza funtzio independentzia  
duen erakunde kontratugile bat da eta haren kolektibo jasotzaileak erabiltzaileen ezaugarrien  
araberako zerbitzu bereziak behar ditu; hori dela-eta, eman behar duen zerbitzu bakoitza ob-  
jektu guztiz bereizita da. Hala, espediente horiek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu  
Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak 138. artikuluan  
xedatzen duenaren arabera izapidetu dira. Artikulu horrek hauxe ezarri du:

«Kontratu txikiak dira 50.000 eurotik beherako kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo  
18.000 eurotik beherakoak, bestelako kontratuak direnean, 206. artikuluan estatu eremuan  
zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz xedatutakoaren kalterik gabe».

2014ko ekitaldian zeramika eta eskulanetako tailerretako gastuaren gauzapena 85.135,32  
eurokoa izan da, honela zehaztuta erakunde kontratugileen arabera:

ERAKUNDE KONTRATUGILEA	ZENBATEKOA
Ajuria egoitza	21.921,58
Lakua egoitza	7.934,01
Zadorra egoitza	16.724,80
Txagorritxu egoitza	38.554,93

– Pertsona erabiltzaileen garraioa.

2014ko ekitaldian erabiltzaileen garraio prestazioa egiteko xedez, 2013ko abuztuan prozedura  
irekiaren bidez dagokion kontratazio prozedura lizitatu zen; kontraturako aurrekontua 476.444,16  
eurokoa zen eta haren xedea guztira 16 lotetan banandu zen.

Kontratazio espediente izapidetzean gertatu eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari  
egotzi ezin zaizkion inguruabarrek 2., 3., 10. eta 11. loteei dagokien kontratua sinatzea galarazi  
zuten:

– 2. eta 3. loteen kasuan, kontratua gauzatzeko ezintasuna izan zen, baldintza teknikoek  
ez zituztelako behar bezala jaso zerbitzuaren berariazko premiak, eta onartutako esleipena  
baliogabe jo zen.

– 10. eta 11. loteen kasuan, lizitzaile bakarrari espediente beraren beste lote bat esleitu zitzaion, eta egoera horrek galarazi egiten zuen besteren baten esleipenduna izatea, baldintza teknikoaren orriaren arabera eta, beraz, esleitu gabe geratu zen.

GOFek zerbitzua ematen jarraitu behar zuela kontuan izanda, 2015eko ekitaldian izapidetu zen hurrengo kontratazio espedientea sinatu arte lote horietan sartutako zerbitzuak emateko hasiera batean 2. eta 3. loteen esleipendunak izan ziren lizitzaileei eta arestian aipatu prozeduran 10. eta 11. loteetara aurkeztu zen bakarrari (zeinak objektibotasun, lehia publiko eta beharrezko publizitateko printzipioak bermatu baitzituen) eskatu zitzaion.

#### II.1.2. Sozietate Publikoak.

1. Indesa 2010, SLk egindako bi langileren kontratazioak urratu egiten du 2014ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/2013 Legearen hogeigarren xedapen gehigarria.

2. Indesa 2010, SLk zenbait hornigai eta zerbitzu 581.956 euroren zenbatekoan kontratu txiki modura kontratatu ditu, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz.

#### Alegazioa

INDESA 2010 S. L.

2010eko abenduan ONDESA 2010 S. L. sortzeak berezko nortasun juridikoa duen entitate berria sortzea ekarri zuen, lehen GOFek egiten zituen jarduerak egiteko. Une honetan, INDESA 2010 S. L. GOFek eta/edo AFAk lizitatzen dituen horniduren jasotzaile subrogatu zen.

Zehaztapen orokor horrez gain, hauek ere zehaztu behar dira:

– Paketeetarako produktuei dagokienez, haren hornidurarako kontratazio zuzena erabiltzen da, bezeroen eskariaren aurretiazko beharrezana eta haiek eskatutako kalitate eta mota kontuan hartuta, oso zaila bailitzateke stock, kalitate eta bolumen ezezagunak dituen produktu bat lizitatzeko.

– Produktuak garraiatzeko kontratua (catering eta garbitegiko arropa) 2014an lizitatu zen, eta urte horretako abenduaren 23an esleitu zen. Lehen Indesak ez zuen hura kontratatu eta, horren ordez, sozietatea sortu aurretik GOFen zerbitzuak ematen zituen enpresarenak erabiltzen ziren.

Arabako Lanak, SAK bi kontratu esleitu ditu (4 eta 5 espedienteak), 331.984 euroan, lizitazioaren publikotasun printzipioa urratuz.

#### Alegazioa

Auzitegiaren adierazpena egia bada ere, gogoratu behar da, 50.000 eurotik gorako kontratuetan publizitatea derrigorrezkoa izan arren, aipatu espedienteetan erabili den lizitazio prozeduran -Arabako Lanaken kontrataziorako barne jarraibideen sinplifikatua- lizitzaileek gonbidapenak igortzen zaizkiela.

Lehen kontratazio espedienteetan -Gesaltza-Añanako parking eremuko aparkalekua- lau gonbidapen igorri ziren, eta gonbidatuetatik hiruk aurkeztu zuten eskaintza.

Navaridasko Tesoro eta San Juan kaleak berrurbanizatzeari buruzko espedienteetan, sei gonbidapen igorri ziren, eta gonbidatuetatik lauk aurkeztu zuten eskaintza.

Lizitazioaren publizitaterik ezaren arrazoia akats material bat izan zen eta kasu bietan ez zuen batere eraginik prozeduran lehiatzeko, eta hura ez zen murriztu.

Espediente bien esleipena 2014ko azaroaren 5ean argitaratu zen kontratugilearen profilean, eta 2015eko otsailaren 13an ALHAOn.

3. 2013ko urriaren 18an Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren (COAVN) Arabako ordezkariak salaketa aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agentziaren aurrean Arabako Lanak, S.

A, AFA eta udal eta administrazio-batzen aurka, zeinek Arabako Lanak, SAri, besteak beste, urbanizazio-, eraikuntza-proiektu eta obra zuzendaritzak sistematikoki kudeaketa mandatu bidez esleitu zizkieten, lehia askaren arauak urratuz. 2015eko azaroaren 11n Lehiaren Euskal Kontseiluak ebatzi zuen «egiazatu dela Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1.1.a) artikulua urratu dela, eta horren erantzule direla AFA, Arabako Lanak, S. A. eta zenbait udal eta administrazio-batzen, eta AFAri eta Arabako Lanak, SAri, hurrenez hurren, 50.000 euroren eta 15.000 euroren zigor-isuna jar dakiela.»

Epaitegi honen ustetan, II.1.1 eta II.1.2 ataletan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeek (ikus I. Sarrera) zuzentasunez bete dute 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

## II.2. Kontuei buruzko iritzia.

### II.2.1. Arabako Foru Aldundia.

AFAk 2014ko Kontu Orokorrean aurkeztu duen Diruzaintza Geldikina 54,5 milioi euroan murriztu behar da ondotik adierazitako doiketen ondorioz:

	EUROAK MILAKOTAN	
	D. GELDIKINA 31.12.14	FUNTS PROPIOAK 31.12.14
Erakunde konpromisoak, espezetan kobratutako laguntza fiskalak	—	(21.220)
Buesa Arena obren finantzaketa, AGAri eskualdetzeko zain	(10.865)	—
Erakunde konpromisoak, partaidetza maileru bidez kobratutako zor fiskalak	—	(4.593)
TEPEF 2008, 2009 eta 2011ko FOFEL likidaz., 2016tik aurr. kobr. geroratua	(43.592)	—
Partzuergoei doan lagatako ondasunak, ibilgetu finantzarioan erregistratuak	—	(9.020)
<b>GUZTIRA</b>	<b>(54.457)</b>	<b>(34.833)</b>

Epaitegi honen iritzira, II.2.1 atalean adierazitako salbuespena alde batera, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeek kontuek (ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan 2014ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzen ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

## Alegazioa

### A.8 Buesa Arena kiroldegiko obren finantzaketa desbideratzea. AGA

Arabako Foru Aldundia ez dago ados Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi duen iritziarekin, diruzaintzako gerakinean 10,9 milioi euroko doikuntza egiteari dagokionez, jarraian adierazitako diren arrazoiak direla eta:

1. AFAk 2014. urtean 3,6 milioi euro transferitu du AFAk berak, Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Buesa Arena kiroldegia handitzeko obretarako sinatutako hitzarmenaren ondorioz egindako diru sarrerari loturik. Zenbatekoak aipatu pabiloia handitzeko abenduaren 17ko 14/2009 Foru Arauaren bidez baimendutako zorpetzeak eragindako epemugei aurre egiteko behar ziren heinean transferitu dira.

2. AFAk uste du jasotako zenbateko guztiak AGAri ez transferitze hutsak ez duela aurrekontuko gasturik eragiten eta, beraz, ezin diola diruzaintzako gerakinari eragin. Beste kontu bat da erabilera libreko diruzaintzako gerakinaren erreserba egotea, zeinak balio izango baitu, zehazten denean, AGArentzako aipatutako funts transferentzia finantzatzeko, eta horixe egin da, eta horrelaxe dago azalduta 2014ko diruzaintzako gerakinaren erreserbetan.

3. Diputatuen Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 17ko Erabakian AGAri ordaintzeko konpromisoa, aurrekontuari dagokionez, ez da ulertu behar eragindako finantzaketa gastu gisa. 2010eko uztailaren 20ko 459 erabakiaren bidez onartutako hitzarmenaren arabera diru sarreraren egutegi bat egonda ere, AGAri ordaintzeko konpromisoak ez dauka egutegirik.



4. Gainerako funtsen transferentzia sozietateak eskatzen duen neurrian gertatuko da, Buesa Arena erreformatu eta handitzeko finantziazio gisa balio izan duten kreditu konpromisoei erantzute aldera. Gogorarazi behar da sozietatearen baliabideen kudeaketa finantzarioa AFAko kudeaketa finantzarioko zerbitzuetan zentralizatuta dagoela.

A.9 TEPEF likidaz. TEFFF 2008, 2009 eta 2011, 2016az geroztik geroraturako kobrantza.

Arabako Foru Aldundia ez dago ados Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi duen iritziarekin, diruzaintzako gerakinean 43,6 milioi euroko doikuntza egiteari dagokionez, jarraian adieraziko diren arrazoiak direla eta:

Proposatutako doikuntza funtsaren 2014ko abenduaren 31ko saldoa da, zenbateko doituari sartu gabe 2015. urtean egin diren atxikipenei dagokiena (TEFFFren ehuneko 2ren itzulketa). Arabako Toki-Erakundearen Finantzaketarako Foru-Fondoa arautzen duen 19/1997 Foru Arauak, ordea, laugarren xedapen iragankorrean, hau xedatzen du: «TEPEFen saldoa, besteak beste, Toki Erakundearen Finantzaketarako Foru-Fondoaren partaidetza osagarriaren ehuneko 2aren balioko gutxieneko zenbatekoa aplikatuz konpentsatuko da, 10 urteko epean 2012ko ekitalditik zenbatita»; beraz, 2016 urtetik (txostena eta alegazio hauek idazteko datari aplikatuta) 2022ra bitartean TEPEF konpentsatzeko aplikatuko den zenbatekoa, doikuntzaren ondorioetarako, 2015ekoarekin egin den bezala ulertu behar litzateke.

Arabako Foru Aldundiak kreditu erreserba bat egin du erabilera libreko diruzaintzako gerakinean, TEPEFen 2014ko abenduaren 31rako saldoari 8 urtez 2.400 mila euroko zenbatekoa (TEFFFren ehuneko 2rako kalkulaturako kopurua) kenduta ateratako zenbatekoagatik, epeari dagokionez berreskuratzeri ziurtatuta ez duen zenbatekoa bermatuz hala. Zenbateko hori honako hau da:

Saldoa, 2014ko abenduaren 31: 43.592

Ehuneko 2ko berreskurapena \* 8 urte: 16.800

Eperik gabe ordaintzeko dagoena eta diruzaintzako gerakin erreserbatua: 36.792

A.9 Finantza ibilgetuan erregistraturako partzuergoei doan lagatako ondasunak.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritziz, aurreko ekitaldietan bost partzuergori doan egingako ondasun lagapenak, 9 milioi eurotan, epe luzerako finantza inbertsioetan erregistratuta daude, emaitzetan egotzi behar zirenean, eta, ondorioz, funts propioak, 2014ko abenduaren 31n, zenbateko horretan murriztu beharko lirateke.

Arabako Foru Aldundia ez dago ados Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi duen iritziarekin, baliabide propioetan 9 milioi euroko doikuntza egiteari dagokionez, jarraian adieraziko diren arrazoiak direla eta:

Doako lagapenak bost ur partzuergora egin dira 1998 eta 2003 urteen artean. Lagapenak euren xedeak betetzeko egin dira, inbentarioa zehaztu eta balioetsi ondoren, eta jarritako ondasunak, instalazioak eta eskubideak deseginez gero partzuergoaren xedeetatik desatxikita geratu eta AFARA itzuliko dira.

Aipatu finantza ibilgetuak lagatako azpiegitura hidraulikoko ondasunek balioa galtzen duten neurri berean galduko du balioa.

Edonola ere, 2015eko kontu orokorrak HKEEK adierazitako arestiko irizpideak sartu ditu dagokion fiskalizazio txostenean arestikoen antzeko gogoetak saihestu xedez.

Iritziaren atalean eraginik ez badu ere, ondotik adieraziko ditugun alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

Arabako Foru Aldundia

– Urriaren 25eko 29/2007 Legeak 2007-2011 bosturteko Euskal Herriko Kupoaren zehazteko metodologia onesten du; ekitaldi itxieran, lege horretatik eratorritako Estatuko

Administrazioarekiko finantza harremanei dagokienez -indarraldia amaitu ondoren eta aipatutako Legearen Azken Xedapen Lehenengoari jarraiki, automatikoki luzatu dena-, EAEn Administrazio Orokorrek desadostasunak ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin metodologia horretako Hirugarren Xedapen Osagarriaren (hezkuntza, osasun eta menpekotasun gaietako akordioak) eta Bosgarrenaren (oinarria eta/edo gaurkotze indizearen berrazterketa) aplikazioa dela eta; baita, enplegu politika aktiboen gaitan EAEn aplikatuko zaion eskualdaketaren aurrekontu erregimenari dagokionez ere. Ez dakigu desadostasun hauek ebazteak zein ondorio eragingo dituen AFEn kontuen gainean.

#### Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

– Urriaren 25eko 29/2007 Legeak 2007-2011 bosturtekorako Euskal Herriko Kupoa zehazteko metodologia onesten du; ekitaldi itxieran, EAEn Administrazio Orokorrek desadostasunak ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin, besteak beste, Hirugarren Xedapen Osagarriaren (menpekotasun gaietako akordioak) aplikazioa dela eta; txosten hau idatzi dugun datan ez dakigu zer ebatzi duten. GOFEn kontuek 5,1 milioi euroren kobratzeko saldoa barne hartzen dute, Estatuaren transferentzietan 39/2006 Legearen ondorioz (Autonomia pertsonalaren Sustapena eta mendeko egoeran dauden pertsonen arreta ematekoa) egindako murrizketen ondorioz. AFEn likidazioak Diruzaintza Geldikinean kopuru honekin erreserba bat jasotzen du.

#### III. Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak

Atal honek besarkatzen ditu ALHren bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

##### III.1. Arabako Foru Aldundia.

##### III.1.1. Aurrekontua eta kontabilitatea.

– 2014ko abenduaren 31n Kontu Orokorren urteanitzeko gastuen egoerak ez ditu geroko ekitaldietarako hartutako konpromisoak jasotzen, 2 milioi euroren zenbatekoan:

	EUROAK MILAKOTAN
	2014
Biomasarentzat enologia laborategiko berogailua jartzea	115
Ekialdeko errepideen foru sarearen zaintza integrala 2013-2014	923
Mendebaldeko errepideen foru sarearen zaintza integrala 2013-2014	923

#### Alegazioa

Ezin gara bat etorri Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako oharra hemen azaldu diren arrazoiengatik:

##### Enologia laborategiko berokuntzarako biomasa instalatzea

Aipatu obra kontratuaren lizitazioak nahiz esleipenak 2014ko ekitaldian osorik gauzatzea aurreikusten zuten eta, ondorioz, finantzatzeko behar zen kreditua 201. urtean gordetzen zuten. Gauzatzeko epea 2015eko martxora arte luzatzearen arrazoia kontratugileari egozterik ez dagoen gauzapeneko atzerapen bat izan zen, 2014ko azken egunetan agertu zena, eta horrek zegokion kreditua 2015eko ekitaldiko aurrekontuan jasotzea eragin zuen.

Logikoki, 2014ko abendurako kontu orokorrak ezin zuen islatu Arabako Foru Aldundiak gainditu gabe zegoen egitate bat.

##### Errepideen foru sarearen kontserbazio integrala ekialde eta mendebaldeko gunetan

Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauko 55. artikuluko 3. atalari jarraiki, gastu etengabeak eta segidako traktuak ez dira konpromiso kredituen egoeran sartuko. Halako gastuei dagozkien errepideen foru sarearen kontserbazio osoari lotutakoak.

– AFAk inbertsio errealeen kapituluaren barruan 7,2 milioi euroren gastuak kontabilizatu ditu, kontularitzan ondarean galera eta irabazietan jasotzen direnak. Batik bat, azpiegiturak konpondu eta zaintzeko dira.

– «Salgai dauden aktiboak» egoera balantzeko idazpuruak 5 milioi euroren saldoa du, aurreko ekitaldietan zor fiskalak berdintzeko erositako bi artelani dagozkienak; horiek, baina, ez dituzte idazpuru honetan jasoak izateko FKPPOren zarpigarren balorazio-arauaren inguruabarrak betetzen, horiek ezin baitira berehalako saltzekotzat jo, ezta oso gertagarri ere.

#### Alegazioa

Arabako Foru Aldundia ez dago ados Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako iritziarekin planteatutako oharrari dagokionez, jarraian adierazten diren arrazoen ondorioz:

Foru Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko zarpigarren balorazio arauaren arabera, salmenta egoerako aktiboetan sartzen den ondasun bat higiezinen inbertsio, ibilgetu edo material gisa birkalifikatu dadin, aldaketa bat egon behar da bere erabileran. 2014an ez da egoera hori gertatu HKEEK aipatu ondasunetan.

2015eko ekitaldia ixtean esleitu zaizkio Arabako Foru Aldundiari aipatu artelan biak eta haien zenbatekoa ekitaldi horri dagokion itundutako zergagatik zerga-biltzean sartu da.

– «Kontraabalak» izeneko aurrekontuz kanpoko eragiketen errubrikak ez ditu 345.487 euroren emakidak jasotzen, Araban 2014ko ekitaldian ETE eta autonomoen proiektuak finantzatzeko programari dagozkionak.

– - Uztailaren 13ko 20/2012 LED betez, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa, AFAk eta bere erakunde autonomoek ez zuten 2012ko azken aparteko ordainsaria ordaindu. Arabako Lurralde Historikoaren 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorren oroitidazkiak ez du horren erabilgarritasunaren mugaketei buruzko informaziorik ematen.

#### Alegazioa

«KONTINGENTZIA LEGAL ETA JUDIZIALETARAKO ERRESERBAK» epigrafearen pean, erabilera libreko diruzaintza geldikinar 43.593,04 euroko gerakin bat egitea onartu zen. Gerakin horretan 5.610,63 mila euro sartu ziren guztira aipatu kontingentziari erantzuteko. Erreserba horrek, onartu ziren besteekin batera (kupoaren erregularizazioa, TEPEF eta beste kontingentzia batzuk), galarazi egin zuen 2014ko ekitaldiaren likidazioan adierazitako diruzaintza gerakina 2015ean ekitaldi horretan gauzatu zitezkeen kontingentziak finantzatzeko izan ezik erabiltzea.

#### III.1.2. Zerga sarrerak.

– Zerga dokumentazio guztiaren informatizazioa Ogasun Zuzendaritzaren Datu Fiskalen Azterketa eta Kudeaketa Zerbitzuak egiten du eta hori guztia Tributuen Zerbitzuek egiaztatzen dute. Agiri horiek erregistratetik laburpenak sortzen dira, kontabilizazioaren euskarri direnak. Kontabilitatean, berriz, funtsen mugimendua soilik egiaztatzen da eta kontularitzako agirietan artekaritza formala baizik ez da egiten.

Informazio fiskalaren atal bat eskuz kontrolatzen da. Horietan bereziki gailentzen dira egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea. Kontularitzako erregistroek oinarritzko helburu den kontrol-egitekoa gauzatu behar dute, kontularitzako sistemak informazio guztia jasotzen duelako ziurtasuna izateko moduan; honenbestez, lehentasun erabatekoa eman behar zaio prozesuen automatizazioaren bitartez kudeaketari buruzko informazioaren kalitatea hobetzeari eta kontularitzan diru-bilketa zerbitzuaren informazioa barne hartzeari. Berebat, gomendagarria litzateke Aldundiak jatorri fiskaleko eragiketen egiaztaketak egitea.

– Zatikapenak eta gerorapenak:

Egindako azterlanaren bitartez ikusi dugu ondotik zerrendatutako zatikapenak araudiak agintzen duena baino ehuneko 5) interes tipo txikiagoan eman direla, bertan araututakoak baino epe luzeagoetarako (11 hilabete) eta inongo bermerik eskatu gabe.

- 217/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiak bi zergapekori zorraren 18 hilabetetarako zatikapenak ematen dizkie, ehuneko 1ean, 838.603 euroren zenbatekoan.

- AFAk 235 eta 738/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakien bitartez 20,5 milioi euroren zatikapenak eman dizkie guztira 21 zergapekori, ehuneko 1eko interes tipoarekin, 4 eta 9 urte bitarteko aldietarako eta iraungipen datatik aurrera kontatuta bi urteko gabe-aldiarekin.

- 596/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiaren bitartez 18,2 milioi euroren zatikapena eman zaie enpresa talde bateko bi erakunderi eta horietatik 10,6 milioi euro 2012 eta 2013ko DKE bidez geroratutako birfinantzatzeak dira, ehuneko 0,5eko interes tipoarekin, 8 urteko aldirako gehi hiru urteko gabe-aldia. Gainera, 17,4 milioi euroren zorra duen erakundeetako bati, ehuneko 1eko berandutza interes tipoa ezarri zaio.

293/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiaren bitartez enpresa talde bateko 17 erakunderi 5,5 milioi euroren printzipalaren gainean zatikapena eman zaie 3 urteko aldirako, arautegiak ezarritako epea gaindituz; horietatik 2,2 milioi euro aurreko ekitaldietako birfinantzatzeak dira eta 2,5 milioi euro, berriz, hirugarrenak bide exekutiboan zuen zorra.

725/2014 Diputatuen Kontseiluen Erabakiaren bitartez zordun bati 7,5 milioi euroren printzipalaren gainean zatikapena eman zaio; horietatik 5,1 milioi euro aurrez geroratu eta zatikatutako zorrak dira, 5 urteko aldirako, araudi arautzailean ezarritako epea gaindituz eta inongo bermerik aurkeztu gabe.

AFAk prozeduraren bat garatu behar luke Zerga Foru Arau Orokorrean aurreikusitako baldintza bereziak ezartzeko.

#### Alegazioa

Ohar batean adierazi da zatikapenak araudiak arautu ehuneko 5) baino interes tasa txikiago batera eman zirela, bertan arautu (11 hilabete) baino epe luzeagoak sartuz eta bermerik eskatu gabe, eta ezin da horrekin bat etorri.

Aipatu zatikapenak otsailaren 27ko 4/2012 Foru Arauak baliozkotutako buruzko martxoaren 2ko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan oinarrituta eman ziren. Haren artikulua bakarrak hau dio hitzez hitz.

1. Zorrak ordaindu beharrean daudenek diruzaintzako aldi baterako arazoak frogatzen badituzte, ekonomia jardueraren bideragarritasuna edo langileen lanpostuak kinka larrian izanik, Foru Aldundiak zorrak zatikatzeko edo geroratzeko baimena eman dezake, kasu bakoitzean erabakitzen dituen baldintzetan.

2. Aurreko 1 idatz zatian aipatzen diren baldintzak geroratzearen edo zatikatzearen edozein elementuren gainekoak izan daitezke: prestazio erantsia, bermeak edo epeak.

3. Era berean, aurreko 1 idatz zatian adierazitako kasuetan, Foru Aldundiak zorraren ordainketa Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean 59 artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera onartu ahal izango du; kasu horietan, ordaintzeko modu horretatik eratorzen diren zerga ondorioak aplikatuko dira.

Hortaz, gutxienez oharra zehaztu behar litzateke, adieraziz bai interes tasa ehuneko 5) bai erreferentziako epea (11 hilabete) araudian orokorrean araututakoak direla, eta onartuz hark orokorrean ezarritakoez beste tasak eta epeak aplikatzea ere onartzen duela, kasu hauek bezalakoetan hain zuzen ere.

Kasu jakinak aztertu ahal badira ere, kasu guztietan daude Ogasunaren Zuzendaritzaren txostenak kasu bakoitzean dauden inguruabarrak azaltzeko eta salbuespenekoak zirela eta aipatu 4/2012 Foru Araua aplikatzea merezi zutela ebatzi zen.

Edonola ere, kasu bakoitzeko egoera zehatzek ez dute ahalbidetzen kasu guztietan aplikatu daitekeen prozedura objektibo eta homogeen bat ezartzerik. Une oro itenbide bat bilatu nahi izan da, interes publikoa uztartuko duena, aurkezten den kasu bakoitzaren salbuespeneko egoeren arabera.

– Ekitaldi itxieran bi zergapekok BEZa itzultzeko bi eskaera aurkeztu dituzte, guztira 3,3 milioi eurorenak; eskaera horiek ez dira ebatzi eta sei hilabetetik gorako antzintasuna dute. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 31.2 artikulua agintzen duenaren arabera, AFAk likidazio hauen kopuruak berandutza interesarekin batera ordaindu behar ditu.

#### Alegazioa

Kausa justifikatuak zeuden aipatutako itzulketa eskaerak ez ebazteko; izan ere, 2014ko ekitaldia ixterakoan zergadun biei ari zitzaizkien ikuskapen jarduerak egiten eta berezitasun bat zegoen: enpresa horiek ikuskatzeko eskumena ez zegokion Arabako Foru Ogasunari. Halako kasuetan egokitzat jotzen da ogasun eskudunak egindako ikuskapen jarduerak amaitu arte itxarotea eskatutako kopuruak itzultzeko.

– 2014an kirol erakunde baten zor fiskalen baliogabetzea erregistratu da gauza bidezko ordainketa eginda, 1,1 milioi eurorena; horretarako, 2011n 12 urteko eperako emandako partaidetza mailegu bat berri da (kopuru horretan gehituta). 2011n izenpetutako berritze-konpromisoaren kontratuak ezarritako baldintza izan zen mailegua muga-eguneratzeko kausetarik batere ez zela gertatuko. Ez da egiaztatu baldintza horiek bete diren.

#### Alegazioa

Adierazienez, ez da egiaztatu zerga-zorrek partaidetza maileguaren zenbateko handiagoa bihurtzeko baldintzak betetzen ziren, baina ezin da bat etorri adierazpen horrekin. Aipatu kontratuaren arabera, bihurtza hori automatikoki gertatzen zen, kontratuan bera suntsiarazteko baldintzarik betetzen ez bazen, eta bertan ez zen ezartzen mekanismo zehatzik hura egiaztatzeko. Hori dela-eta, ez da beharrezkoa administrazio espedienterik izapidetzea, ez horri buruzko berariazko txostenik egitea. Inguruabarrak egiaztatzeko, entitateak Arabako Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako urteko kontuak aztertu ziren, horrek baldintza guztiak egiaztatzea ahalbidetzen baitu:

- Lehiaketa hitzarmenaren indarraldia (memoriaren 15. oharra).
- Itundutako baldintzak betetzea (memoriaren 9.c eta 15. oharra).
- Partaidetza maileguaren indarraldia (memoriaren 9.c oharra).
- Akziodun gehienei eustea (memoriaren 9.8 oharra).
- Administrazioaileei eustea (memoriaren 13. oharra).
- Egoitza sozialari Araban eustea (memoriaren 1. oharra).

#### III.1.3. Langileria gastuak.

Indarreko LZetan zerbitziburutzako 32 lanpostu daude izendapen aske bidez hornidura gordea dutenak; ordea, EFPLren 46.4 artikulua agintzen du zuzkidura molde ohikoa lehiaketa dela. Bestetara, ez da behar hainbat justifikatu izendapen aske bidezko hornidura, ez baita lanpostuen banakako azterketarik egin, zuzendaritzako edo arduraren bereziko egitekoak egiten direla erakutsiko dutenak.

#### Alegazioa

Hemen ere ez gaude ados Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitakoarekin. Izan ere, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 28ko 47/2011 Foru Dekretuaren arabera (ALHAO 85. zenbakia, 2011ko uztailaren 18koa), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioei eta behin-behineko langileei erreserbatutako Lanpostuen Zerrenda aldatu egin zen, hain zuzen ere, Aldundiaren zerbitziburuen hornikuntza sistemaren gaiari heltzeko.

Zerbitziburutza guztietako ezaugarriak aztertu eta ikertu egin ziren, bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuz eta honakoei erreparatu:

– Postuaren maila, Arabako Foru Aldundian lanpostuak Balioesteko Prozedura onartzen duen apirilaren 6ko 184/1999 Foru Aginduak ezarritako zenbait eragileren arabera. Ezaguera, Esperientzia, Autonomia/Ekimena/Zailtasun Teknikoa, Harremani buruzko erantzukizuna, Besteetan lanari buruzko erantzukizuna.

– Lanpostuaren taldea. Lanpostuaren sailkapen taldea ere baloratu egin zen. Izendapen libreko sistemaren bidez horni daitezkeen postuen «zuzendaritza izaera» eta/edo «erantzukizun berezia» direla-eta, balio handiagoa eman zitzaizen maila akademiko handieneko titulazioak eskatzen diren zerbitziburutzei.

– Lidergorako gaitasuna. Balorazio handiagoa eman zitzaizen zuzendaritza izaera nabarmena duten postuei: zenbait administrazio unitate zentralizatzeko eta koordinatzeko lan etengabea eta profesional kualifikatuen talde baten lidergo, koordinazio eta motibazioko eginkizunak garatzea eskatzen dutenak.

Azterketa horren ondorioz, aldatu egin ziren lanpostuen zerrenda eta ordura arte indarrean zegoen sistema, sindikatuen ordezkariak aho batez sinatutako akordioaren ondoren. Hala, hornidura sistema gisa lehiaketa zuten lanpostuak zehaztu ziren eta horien zerrenda dekretuaren III. eranskinean ezartzen da.

Dekretu horren ondorioz, izendapen libreko hornidura zuten zerbitziburutzen kopurua murriztu zen, guztiak aztertu ondoren eta azaldutako irizpide teknikoak aplikatuz.

#### III.1.4. Kontratazio administratiboa.

2014an 30,1 milioi euroan esleitutako 17 espedienteren lagina aztertu dugu eta aurreko urteetan esleitutako beste 22 espediente, 2014n 20,7 milioi euroren egikaritza izan dutenak. Zera ikusi dugu:

– Nerbioiko parke linealaren bide berdea eraikitze lanen espedienteen (15. espediente), 173.252 euroan esleitu zenean, 21.450 euroren aldaketak egin dira dagokion kontratazio espedienteen izapidetu gabe, gerora Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bidez baliokidetu zirenak.

#### Alegazioa

Aurreko espedienteen, Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauan jasotako prozedurak xedatzen duenez jardun du, barne kontroleko organoek kontratazio espedientearen gabezia jakinarazi ondoren, eta kontratazio organoak aurreko baimenik gabe egindako kontratu aldaketa baliozkotu du, hirugarrenak kaltetzea saihesteko.

– Samaniegoko hondakin-urak Villabuenako mendebaldeko biltegi berrira eramateko obren espedienteen (14 zk. Espediente), 846.075 euroan esleitu zenean, prezioaren irizpidearen puntuazioa esleitzeko baliatutako formulak saritu egiten ditu aurkeztutako bidez besteko aritmetikora gehien gerturaten diren eskaintzak eta zaildu egiten du eskaintzarik merkeenaren aldeko esleipena.


#### Alegazioa

Ezin da batere bat etorri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatu formula erabilia esleipena eskaintzarik merkeenarentzat izateko zailtasunari buruz ateratako ondorioarekin.

Eskaintzen balioespen ekonomikoan erabilitako formula argi eta garbi dago bideratuta abantaila ekonomikorik handiena ematen duen eskaintza hautatzeri eta, bestalde, esleitzeko prezio irizpidez gain beste zenbait irizpide duen prozedura irekia izanik, horren helburua ikuspuntu tekniko eta ekonomikotik eskaintzarik onena lortzea da.

Eta ildo horretatik, «Samaniegoko hondakin-urak Eskuernagako mendebaldeko kolektore berri batera batzeko proiektua»ren obrak lizitzeko eskaintza ekonomikoak balioesteko erantsitako grafikoan ikusten denez, argi dago zati bereizi bitan oinarrituta eraikitze erabili den formulak

erraztu egiten duela eskaintza garestienen eta merkeen artean argi bereiztea; izan ere, beherapen zenbat eta handiagoa puntuazio handiagoa joerari beti eutsiz, bereizketa hori are nabarmenagoa da eskaintza garestienen inguruan, haietan beherapenaren ehunekoan aldea berdina izanik puntuazioan alde handiagoa baitago. Hala, merkeen tartean dauden eskaintzak hobesten ari dira, haien artean bereizketa hain nabarmena ez delako.



Lehenago egindako lizitazioen historikoa eta lizitatuzaileek aurkeztutako beherapenen goranzko joera ikusita, zeinaren jatorria herri lanaren egungo eskumen esparruan baitago, lizitatuzaileek portaera kontserbadoreak hartzea espero da, halako formulak aplikatzen direnean, puntu batetik aurrera hartutako arriskua ez datorrelako proportzionalki bat lor daitekeen puntu kopuruarekin.

Edonola ere preziorik txikienean lizitatzen duen eskaintzak puntuaziorik handiena lortzea errespetatuz, ordea, eta lizitazio tasa berdintzen duen eskaintza ekonomikoa haztatu gabe, eskaintza ekonomikoaren «benetako» haztapen txikiagoa saiheste aldera.

Onorioz, ezin da esan erabilitako formulak esleipena eskaintzarik merkeenarentzat izatea zailtzen duenik, eskaintza horrek lortuko duelako beti puntuaziorik handiena; aitzitik, egokia- goa litzateke esatea erabilitako formulak osorik kontratuaren helbururako onuragarriena den eskaintza lortzea errazten duela, eta horixe da, hain zuzen ere, irekitako prozedura baten benetako asmoa.

– Jundizko hondakinak sailkatu eta bereizteko plantan egindako hobekuntza lanen azken egiaztagirik ez dago (37. Espedientea), 461.441 euroan esleitu zena.

#### Alegazioa

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 75/2012 Erabakiak xedatu zuenez, Jundizko Ontziak Sailkatzeko Planta 1999 eta 2001 artean eraiki zen, zeuden teknologiak erabiliz, gehienak eskuzkoak. Geroago, planta gehiago automatizatzeko makineria eta ekipamenduak instalatu eta abiarazi ziren, eta erantzun eraginkorra eman zen hala, tratatu behar ziren ontzien kopuruak gora egin ahala.

Hala ere, berezko bilakaera teknologikoa eta hamar urte dituen planta horretako ekipamendu- duen zaharkitzea direla-eta, derrigorrez ordeztu edo egokitu behar dira dauden ekipamendu batzuk, Ecoembesek eskatzen dituen errendimenduak betez. Horretarako, aipatu erabakia- ren bidez, Jundizko Ontzien Hondakinak Sailkatzeko eta Bereizteko Planta Ustiatzeko zerbitzu

publikoaren kudeaketaren kontratazioa onartu zen, gauzatzeko hamar urteko epea jarrita, eta zeuden instalazioak egokitu eta hobetzeko obrak eta ekipamenduen eta makinak erosteta kontratatu ziren.

Esleipendun gertatu zen lizitatzailleak aurkeztutako eskaintza ikusita, baldintza teknikoan agirian jasotako «Baliioetsi behar den oinarritzko irtenbidea»ri buruzkoa, ez zen beharrezkoa izan aipatu instalazioetan obrak egitea; aitzitik, ekipamenduak eta makinak ordeztu ziren:

1. Plastikoa xurgatzeko sistema, 55.305 eurokoa
2. Tauletako zinta sistema, 135.615 eurokoa
3. Azpiproduktuen prentsa, 106.067 eurokoa, metal ferrikoen prentsa, 61.869 eurokoa eta orga jasotzailea, 22.500 eurokoa.

Guztira, 381.356 euro BEZik gabe (461.440,68 euro BEZarekin).

Ondorioz, ez dagokio obrei dagozkien amaierako egiaztatzea, esleitutako oinarritzko irtenbidea ekipamenduari baino ez baitagokio. Helburu nagusiari dagokion prestazioa deskribatutako ekipamendua hornitzea da eta aplikatu behar zaion araubide juridikoa, kontratuaren zati hori gauzatzeari dagokionez, hornidura kontratu bati dagokiona da, SPKLTBren 9, artikuluan xedatutakoaren arabera.

– ALHren animalien osasun gaietako lan eta programen espedientean (27 zk. espedientea), 2,8 milioi euroan esleitutakoan, animalien partaidetza duten eta albaitariaren kontrola beharrezkoa den azoka eta ekitaldietara joateagatik emandako zerbitzuetatik eratorritako tasa kobratu gabeen kontrolik ez da egiten.

#### Alegazioa

Animalien osasunaren arloko lan-kontratuen eta programen esleipendun den enpresa sartu zen bategite prozesuak atzerapena eragin zuen kobratu gabeko tasen kontrolari buruzko agirien bidalketan.

2015ean, ordea, informazio hori bidali zen eta handik ordaindu gabeko 5.590,85 euroko zenbatekoa ondorioztatzen da. 2016ko ekitaldian erreklamazio idazkia igorri zaie tasen zordun guztiei eta prozesua oraindik amaitu ez bada ere, kobratu gabe dagoen zenbateko osotik 1.440,37 euro sartu dira dagoeneko.

2014ko abenduaren 30ean kirol elkarte batekin hitzarmen bat izenpetu zen, ALH sustatu eta balioa emateko publizitate ekintzak gauzatzeko eta 2014-2015 denboralirako Arabako oinarritzko saskibaloia bultzatzeko. Hori dela eta, AFAk 2015ean sozietateari 1,3 milioi euro ordainduko dizkio. Hitzarmen honek babesletza kontratu modura sailkatuko genituzkeen jarduerak besarkatzen ditu (kamiseta, taula eta abarretan logoak eramatea), diruz lagungarri diren jarduerari dagozkienak. Honela, bada, jarduerak agiri eta prozedura bakar batekin bideratzen dira, araudiak prozedura berariazkoen bidez izapide bereziak gauzatzeko eskatzen duelarik.

• Babesletza: ez dira baloratu kirol elkarteak eman beharreko prestazioak, AFAren eta elkarte honen kontraprestazioak baliokide izan daitezten.

• Diruz lagundutako jarduerak: finantzatutako jarduerak egitea ez ezik, horien kostua ere justifikatu behar da eta hartzaileari –diru-laguntzen onuradun den aldetik- indarreko legediak agintzen dituen gainerako obligazioak betetzeko eskatu: baterako laguntzen berri ematea, aurrez emandako kopuruak bermatzea, e.a.

Hitzarmen honek kirol erakundeak erantzukizun orotatik salbuesteko klausula barne hartzen du euren obligazioak betetzen ez dituzten kasuetan; klausula hori araudiak kontratugilearen erantzukizun gaietan SPKlk eta diru-laguntzaren onuradunarenak 3/1997 FAn arautzen dutenaren aurkakoak dira.



### Alegazioa

Arabako Foru Aldundia ez dago ados 2014ko ekitaldian sinatutako protokoloaren harira Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin dituen oharrekin.

Lankidetzarako protokoloa da, eta babesba du xede, babesbaak konpromisoa hartzen baitu, Administrazioak kasu honetan kirol jarduera bat gauzatzeko ematen duen laguntza ekonomikoaren truke, babeslearen publizitatean eta babesleak egokitzen jotzen dituen balio jakin batzuen hedapenean laguntzeko. Kasu honen berezitasuna da, ordea, ez dagoela beste alderdiaren zuzeneko kontraprestazio profesionalik. Beste alderdiak kirol jarduera egiten du eta jarduera horrek oihartzun espezifiko eta berezia du hedabideetan; horrela alderdi horrek publizitatea lortzen du eta bere irudia lagatzen dio babesleari.

Lankidetzaren hitzarmena babes kontratu pribatutzat joko balitz, eta, ondorioz, Sektore publiko kontratuen Legeari lotuko balitz, horrek ez luke eragin substantiborik izango alderdien eskubide eta betebeharreran, aipatutako artikulua 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera:

«Kontratu pribatuak, prestatzeari eta esleitzeari dagokienez, lege honen eta lege hau garatzeko xedapenen arabera arautuko dira, berariazko legerik ez dagoenean, eta osagarri gisa administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala dagokionean, zuzenbide pribatuko arauak, kasuan kasukoak, subjektu edo erakunde kontratugilearen arabera. Kontratu onorioak eta azkentzea zuzenbide pribatuaren bidez arautuko dira.»

Hura prestatzeari eta esleitzeari dagokienez, uler liteke (haren xedea osatuko luketen prestazioen nahiz hura gauzaten duten kirol entitateen berezitasuna kontuan hartuta) prozedura negoziatuak erabil daitezkeen kasu batzuen aurrean gaudela, 154.d) artikulua aplikaturik, halakoak erabiltzeko bidea ematen du eta: «Arrazoi tekniko edo artistikoengatik, edo eskusiba-eskusibideak babestearekin zerikusia duten arrazoiengatik, kontratua enpresaburu jakin bati baino ezin eman zaionean». Beraz, haren izapideak ez lirateke lankidetzaren protokoloak onartzeko egin behar diren oso bestelakoak.

Haren ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuaren arabera arautzen den kontratu pribatua izanik, alderdien borondatea nagusituko litzateke, legeen kontrakoa ez den heinean. Hori guztia dela eta, balizko babes kontratu pribatuaren edukia ezbaian jarritako lankidetzaren hitzarmenaren antzekoa izan liteke, alderdien eskubideei eta betebeharreri dagokienez.

Lankidetzaren hitzarmenean jasotako jarduketak babesaren eta dirulaguntzaren esparruetan egokitzen ote diren argitu behar dugu. Aipatutako hitzarmenak harreman juridiko konplexuak islatzen ditu, eta euren parterik handien eta funtsezkoenak babesaren ohiko ezaugarriak dituzenez, ezin dira tresna juridiko desberdinetan bereizi. Hori onartuta, esan beharra dago eman zaion aurrekontu tratamendua egokia dela garrantzi handiagoa duten harreman juridikoetarako (2. kapitulua, gastu korrontea). Auzitegiak ez du zehazten zeintzuk diren dirulaguntzaren esparruko jarduketei lotuta egon daitezkeen jarduketak, baina denek dute oinarritzat AFAk kirol entitateen irudia erabiltzea lurraldeko elementu adierazgarrien publizitatea egiteko edo balio jakin batzuk sustatzeko.

Prestazioen balorazioari dagokionez, ezin da lankidetzaren hitzarmena publizitate kontratuekin parekatu, zeinetan iragarleak, hots, kontratazio organoak, agentzia bati, hots, esleipendunari, publizitatea egiteko eta hura sortu, prestatu edo programatzeko arduraren ematen baitio. Azken kasu horietan zerbitzu kontratuarekin bat datorren helburua daukagu eta beraren bereizgarria zerbitzua ematen duen alderdiak duen profesionaltasuna da. Alderdi horri dagokion tarifa ordaintzen zaio (merkatuko prezioa). Aztergai dugun kasuan, aldiz, helburua da Arabako Foru Aldundiaren irudia sustatzea edo kirol entitateak ordezkatzen duen gertakari, jarduera edo balio jakin batekin lotzea, hura finantzatzuz, eta babes horren trukean publizitatea lortzea. Itzulera horiek baloratzea oso-oso zaila da eta beti subjektiboa, batez ere era honetako kontraprestazioak emateko gai diren subjektuen aniztasuna falta delako.

Kirol entitateak bere betebeharrak beteko ez balitu hura erantzukizunetik salbuetsiko lukeen klausula kontratistaren erantzukizunaren arloko araudiaren aurkakoa delakoan salatu den akatsari dagokionez ere, ezin gara ados egon, klausula hori alderdien borondatearen ondorio delako. Alderdien borondatea arau da lankidetzaz hitzarmen honetan, eta aplikatu beharreko gainerako arauari nagusitzen zaie, kontratu pribatu baten aurrean gaudelako. Gainera, klausula horrek ez dakarkio inolako kalterik Arabako Foru Aldundiari, kontratuan hitzartutako betebeharrak baten bat ez betetzeak berekin ekarriko lukeelako Arabako Foru Aldundiak ordaindu beharreko zenbatekoaren doiketa.

### III.1.5. Diru-laguntzak.

#### Ezaugarri komunak

Diru-laguntzen Lege Orokorrak, lehenengo xedapen iragankorrean urtebeteko epea ezartzen zuen Lege hau indarrean sartzen zen unetik aurrera diru-laguntzak bertan ezarritako araubide juridikora egokitzeke, eta epe hori 2005eko otsailean amaitzen zen. Ordea, AFAk ez du egokitzen hori egin eta honenbestez, zuzenean aplikatu beharrekoak dira DLOk Estatuko oinarrizko legedizat jotzen dituen haiek.

AFAk diru-laguntzen plan estrategiko batean eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak zehaztu behar lituzke, horiek lortzeko beharrezko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa iturriak, eta kasu guztietan, aurrekontuaren egonkortasun helburuak betetzera meneratu beharko luke (DLOren 8. art.).

#### Diru-laguntza zuzenak

– Diputatuen Kontseiluak bi diru-laguntza zuzen eman ditu, 90.000 euroren zenbatekoan, deialdi publikoa egitea eragozten duten arrazoiak egiaztatu gabe.

#### Alegazioa

Arabako Foru Aldundia ez dator bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hemen agertutako iritziarekin, zuzeneko dirulaguntzen espedienteak direla eta, eta espediente horiek Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdiren batean egokitzea eragozten duten arrazoiak direla eta.

Gasteizko Udal Merkaturak kudeatzen duen sozietatearen kasuan, espedientearen jatorri dagoen bezala, laguntza emateko proposatu zen jarduerak -eraikinaren goiko aldea birgaitzeko proiektua- helburutzat zuen lanpostuak sortzen laguntzea, jarduera ekonomikoari bultzada ematea eta Arabako nekazaritzako elikagaiak eta eskulangintzako produktuak sustatzea.

Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailean bada hainbat deialdi (berrikuntzarako laguntzak, Araban ekintzailea izateko eta enpresa berriak sortzeko laguntzak, zentro eta entitateetako prestakuntzarako laguntzak eta turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzak), baina batek ere ez dio estaldurarik ematen Azoka Plazako jarduketarako aurkeztutako proiektuari, dela jarduketaren subjektuak ezin duelako deialdietan parte hartu, dela dirulaguntzaren xede den jarduera ez delako haietan egokitzen.

Umeak babesteko «Kekeli Programa»ri emandako dirulaguntzaren kasuan, justifikazio txostenetik ondorioztatzen denez, proposatutako ekintzaren arrazoia da Arabako Foru Aldundiak laguntzea zuzeneko lankidetzako proiektuak gauzatzen; izan ere, horrelako proiektuetarako ez dago berariazko laguntza deialdirik, zuzeneko dirulaguntzen bitartez gauzatzen baitira (Gambia, Brasil, India, Kurdistan, Sahara, besteak beste).

– Guztira 90.000 euroren bi diru-laguntza zuzenetan alde aurreko ordainketak egin dira, jarduera garatzeko aurrerakina beharrezkoa zela justifikatu gabe, 3/1997 FAren 12. artikuluari jarraiki.

#### Alegazioa

Ez gaude ados ohar horrekin, dirulaguntzen aurrerakinak emateari buruzko txostena egiteko prozesuan honako alderdi hauek aztertzen baitira:

a) Gastuaren tipologia. Batetik, unean uneko gastua den edo diruz lagundutako jarduera egiten den bitartean gastu iraunkorra den jakiteko, eta, bestetik, laguntzaren epean gastua egiteko erabili den egutegia ezagutzeko.

b) Dirulaguntza noiz eman den. Entitate onuradunak aurretiazko gastuak egin dituen eta laguntzaren aplikazioaren gainerako aldia zein den jakiteko.

c) Diruz lagundutako egintza noiz burutu den, dirulaguntza emateko ebazpenarekiko hurbiltasuna baloratzeko.

d) Lehenago emandako beste aurrerakin batzuen egoera, justifikatu gabe dagoen eta horretarako epea amaituta daukan beste aurrerakinen bat ba ote dagoen jakiteko. Kasu horretan, organo emaileari jakinarazten zaio aurrerakin batzuk daudela justifikatu gabe eta ezin dela aldeko txostenik eman aurrerakin gehiago ordaintzeko.

e) Entitate onuradunaren aurrekariak.

Azterketa horretaz gain, organo emailearekiko harremanari eusten zaio, laguntzen ordainketaren ezaugarriak logika onargarri bati egokitzeko, ikuspuntu finantzariotik, Arabako Foru Aldundiak kalterik jasan ez dezan.

Deialdi publiko bidez emandako diru-laguntzak

– Lau deialdiren oinarri-arau erregulatzailerak aztertu ditugu: berrikuntzarako, Araban enpresa berriak abiarazi eta sortzeko, ikastetxe eta erakundeetan prestakuntzarako eta turismoa sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak ematen dituztenak, hurrenez hurren, 1,1 milioi euro, 531.975, 383.553 eta 502.862 eurorenak; horietan hautaketa baremoek irizpide orokorrak barne hartzen dituztela ikusi dugu.

Alegazioa

Ez dugu inola ere uste Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hemen aipatu duen akatsa gertatu denik.

Arabako berrikuntzarako laguntzei (Araba Berritzaile), turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzei eta Araban enpresa berriak sortzeko laguntzei dagokienez, deialdiaren oinarriak bat datoz azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 17. artikuluan ezarritakoarekin, eta artikulua horretako 3.e) eta 3.f) idatz zatietan ezarritakoa betetzen duten irizpideak ezartzen dituzte proiektuak hautatzeko; hots, irizpide objektiboak ezarri dira dirulaguntza emateko eta, kasua bada, haiek haztatzeko, eta dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak finkatu dira.

Zentro eta entitateetako prestakuntzarako laguntzen deialdiaren oinarriari dagokienez, oinarrietan argi eta garbi ezartzen dira proiektuak aukeratzeko irizpideak, programaren helburuekin bat datorren ebaluazioa egin ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren lau faktoretan oinarrituta:

a) Aurkeztutako ikastaro proposamenaren justifikazioa.

b) Ikastaroaren gaia.

c) Aurkeztutako eskaeraren kalitatea eta edukia.

d) Emakumeei lanerako kualifikazio edota orientazio berria emateko prestakuntza ekintzak. Irizpide horiek Balorazio Batzordean onartutako baremoei jarraikiz aplikatzen dira.

– Nekazaritzako baliabide hidrikoen kudeaketari 2014 eta 2015eko ekitaldietan gauzatzeko 826.889 euroren diru-laguntzak ematen dizkion deialdiaren oinarri-arau erregulatzailerak (42/2014 FD) ez dute inongo irizpiderik finkatzen urtekoen artean laguntzak banatzeari dagokionez.

Alegazioa

Hemen ere ez gatoz bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako oharrarekin. Laguntza urtez urte banatzeko oinarritzat hartzen da ureztatzailerien elkarte bakoitzak aurkeztu duen gauzatze egutegia, deialdirako partidako aurrekontu esleipenak errespetatuz, urteetako bakoitzean.

### III.1.6. Beste kontzeptu batzuk.

- Bost finantza-erakundetan ez dira baimendutako sinadurak gaurkotu.

#### Alegazioa

Funtsak baliatzeko baimena duten sinaduren zerrenda bidaltzen zaie finantza entitate laguntzaile guztiei, haietan aldatetaren bat gertatzen denean, pertsona baimendunen kargu uzteak eta ordezkoen izendapenak direla eta. Finantza Kudeaketa Zerbitzuak artxibatu egiten ditu jakinarazpen horien igorpen guztiak, jaso izanaren agiriarekin batera, entitatearen bulego nagusian.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatu dituen entitateen kasuetan, jakinarazpen egokiak egin ziren; beraz, entitate laguntzailearen batean informazio hori eguneratu gabe badago, entitate laguntzaile hori da erantzule bakarra.

Horregatik, noski, egindako oharrak agerian jarri duen arazoa ezin zaio inola ere egotzi Arabako Foru Aldundiaren jardunari. Aldundiak behar bezalako arretaz jokatu du eta inoiz ez du arazo praktikorik izan anomalia horren ondorioz.

- 2013ko uztailen zordun baten ordainetan erositako lursailak, 5,4 milioi euroan baloratuak, Jabetza Erregistroan izen eman gabe daude fiskalizazio txosten hau idatzi dugun datan, ALHren Ondareari buruzko FAren 19. artikulua urratuz.

#### Alegazioa

Aipatutako finken ordainketa onartzeko ebazpenean ezarri zen Foru Ogasunaren zordunaren kontura izango zirela erosketaren eskritura publikoa egilesteko notario eta erregistro gastuak. Arabako Foru Aldundiaren jardunarekin zerikusirik ez duten arazo materialek eragotzi dute orain arte erregistroko inskripzioa egitea; inguruabar horrek ez du inola ere baliogabetzen aztertutako eragiketa.

### III.2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

#### III.2.1. Kontratazioa.

- Administrazio-klausula berezien agiriek esleipen irizpide orokorrak dituzte familia-harrera eta adopzio programarako (1 zk. espedienteak), 710.882 euroan esleitutakoa.

#### Alegazioa

Ezin gara bat etorri Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako iritziarekin. Litzitazioa arautu zuen Ezaugarrien Taulan zehatz azaldu zen zenbat puntu emango zitzaizkion formulen bidez ezin ebaluatu ziren alderdietako bakoitzari (100 puntutik 50), eta balio judizioa jasan behar zuen alderdi edo baremoetako bakoitzari esleitutako puntuazioa ere zehaztu zen. Beraz, litzitazioan parte hartu nahi zuten enpresa guztiek alde aurretik jakin zezaten aurkeztu beharreko proiektu teknikoaren zeintzuk alderdi ziren garrantzitsuenak litzitazioan interesa zuen GOFeko arloarentzat.

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatze bi espedientetan (2 eta 3 zk. espedienteak), 17,9 milioi euroan esleitu zirenetan, prezioaren irizpidearen puntuazioa esleitzeko baliatutako formulak saritu egiten ditu aurkeztutako bategen beste aritmetikora gehien gerturatzen diren eskaintzak eta zaildu egiten du eskaintzarik merkeenaren aldeko esleipena.

#### Alegazioa

Ezin gara bat etorri Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako iritziarekin. Ezbaian jarritako formula honako hau da:

Lote bakoitzeko eskaintza merkeena erreferentzia hartuta, zeina puntuazio handienarekin baloratuko baita, hirukotearen alderantzizko erregela aplikatuko zaie gainerako eskaintzei:

Eskaintza merkeenaren prezioa bider 51, zati eskaintako prezioa

Bistan denez, formula horrek ez ditu saritzen batez besteko aritmetikora gehien hurbiltzen diren eskaintzak, eta ez du eragozten esleipena eskaintza merkeenari egitea.

- 2014an 18,6 milioi euroan esleitu ziren hiru kontraturen (1, 2 eta 3 zk. espedienteak) balioetsitako balioak ez du balizko luzapenen zenbatekoa jasotzen (SPKLTBren 88.1 art.).

### Alegazioa

Egia da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak esandakoa: akats materiala egin zen iragarkiak idaztean, eta balio zenbatetsi gisa jarri zen kontratazioen aurrekontua (kontratuaren hasierako iraunaldiko gehieneko zenbateko osoa, balizko luzapen eta aldaketei legokiekeen zenbatekoa sartu gabe).

Esleipen prozeduraren eta kontratazio horiei aplikatu beharreko publizitate baldintzen hautaketan, hala ere, ez zuen eraginik izan akats horrek, zeren eta hiru kontratazio espedienteak prozedura irekiaren bidez esleitu baitziren eta argitaratu beharrekoak modu egokian argitaratu baitziren.

– 2014an 17,9 milioi euroan esleitu diren bi kontratu (2 eta 3 zk. espedienteak) zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu modura izapidetu dira. Zerbitzuaren ustiapen-arriskuaren inongo eskualdaketerik esleipendunari egin ez zaionez gero, gizarte eta osasun zerbitzuko kontratu modura izapidetu behar ziratekeen (SPKLTBren 2. eranskineko 25. kategoria). Ondorioz, aurreikusitako iraupenak -luzapenak barne- inola ere ezingo ziren pleguetan finkatutako 10 urteetara luzatu.

### Alegazioa

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren oharrarekin bat datorren azterketa egin zuen Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboak etxeko laguntza zerbitzuaren kontratuei buruz, bi errekurso berezi jarri zirenean, kalifikazio juridikoarekin zerikusirik ez zuten arrazoiengatik; hala ere, errekursoak izapidetzeko onartu zituen, eta ondorioztatu zuen ez zirela zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak, zerbitzu kontratuak baino (3/2014 eta 4/2014 ebazpenak).

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren oharra eta Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboaren iritzia ikusita, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere egin ditu bata zein bestea, eta kontratuak luzatu egin ditu 2015ean, behin bakarrik, eta hasierako epearen adinako aldirako. Horrela, hasieran zerbitzu kontratu gisa kalifikatu izan balira bezalako indarraldia izan dute kontratuek.

Gero, berriro lizitatu dira, eta zerbitzu kontratu gisa kalifikatu. Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 15eko Erabakiaren bidez onartu du espedientea.

– GOFek zuzenean kontratatu ditu lau hornidura eta sei zerbitzu, guztira 407.246 euroren zenbatekoan, dagokion kontratazio espedientea izapidetu gabe; alabaina, eskaintzak egiteko eskatuta publikotasunik gabeko prozedura negoziatua erabili behar zatekeen.

### Alegazioa

Arau orokor gisa, hemen berriro adierazi behar da gaiari buruz lehenago alegatutakoa, hots, egoitza zentroak erakunde kontratatzaile banatzat jotzen zirela eta, ondorioz, zentro bakoitzaren gastuak bide ematen zuela kontratu txikiak egiteko, kasurik gehienetan.

2013ko ekitaldiko fiskalizazio txostenaren arabera irizpide hori ez zela zuzena ikusita, hornidura eta zerbitzu horietako askoren kontratazio zentralizaturako espedienteak onartu dira.

Aurrekoa gorabehera, azpimarratzekoak dira honako kasu hauei dagozkien inguruabar bereziak:

#### Elikagaien hornidura.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako oharrean 70 mila euroko gastu bat aipatzen da, baina 2014an elikagaien gastu osoa 1.323 mila eurokoa izan da. Zehazki, bi produktutan egindako gastua aipatzen da oharrean: zopa, salda eta saltsa-oinarrien horniduraren gastua, eta ogi horniduraren gastua.

2014ko ekitaldian elikagaien hornidura lortzeko, 2013ko azaroan kontratazio espedientea lizitatu zen prozedura irekiaren bidez. Kontratuaren aurrekontua 1.268.271,81 eurokoa izan zen, eta kontratuaren xedea 23 lotetan banatu zen, guztira; lote horietako bat zen zopa, salda eta saltsa-oinarrien hornidurarena.

Enpresa bakar batek aurkeztu zuen eskaintza lote horretarako, baina, eskatzen ziren produktu lagin guztiak aurkeztu ez zituenez, bera baztertua proposatu zen, eta lote horren lizitazioa eman gabe utzi zen.

Ondorioz, 2014ko ekitaldian, produktu horien beharra zegoenez GOFeren zentro eta egoitzen funtzionamendurako eta otorduak prestatzeko, zuzenean erosi zitzaizkion lizitazioan parte hartu zuen enpresa bakarrari.

Ogi hornidurari dagokionez, 2013ko martxoan, ogi hornidura prozedura irekiaren bidez eta presaz izapidetuta kontratatzeko espedientea onartu zen (7/2013 espediente), eta eskaintza bakarra jaso zen. Beraz, 2013ko maiatzean, 2014ko abenduaren 31ra arteko kontratua egin zen enpresa esleipendunarekin.

#### Ikuztegi zerbitzua

Txagorritxu egoitzako ikuztegi zerbitzua INDESA 2010 SL. foru sozietate publikoak egiten zuen, Arabako Foru Administrazioaren beraren baliabide gisa. 2014an, Txagorritxu egoitzan arazoak detektatu ziren, alegia, INDESA SL. 2010 enpresaren ikuztegi zerbitzu industrialak garbituta hondatu egiten zela erabiltzaileen arropa. Horregatik, erabaki zen egoitzan arropa garbitzeko gunea instalatzea, eta aldi berean zerbitzua egiteko aurrekontua eskatu zitzaien zenbait ikuztegiari. Enpresa bakar baten eskaintza jaso zen, eta zerbitzua esleitu zitzaion kontratu txiki gisa. Egoitzan arropa garbitzeko gunea instalatu zen arte iraun zuen zerbitzu horrek, 2015eko apirilera arte. Publizitaterik gabeko eta izapidetze arrunteko prozedura negoziatua erabili zen.

#### Zaintza eta kontrol zerbitzuak

GOFeko langileak haren bulego nagusietan egiten ari ziren mobilizazioetan gertaera bandaliko batzuk jazo zirela eta, urtarrilaren 2an presaka kontratatu behar izan ziren segurtasun enpresa baten zerbitzuak, bulegoak zaindu eta bertan lan egiten zuten pertsonen segurtasuna eta sarbidea bermatzeko. Aldi berean kontratazio espedientea izapidetu zen, eta azkenik 2014ko ekainean kontratua esleitu zen.

Espediente izapidetu bitartean sortutako gastua da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ikusi duen hori.

### III.3. Gazteriaren Foru Erakundea.

#### III.3.1. Langileria gastuak.

Txanda-kontratuaren formula bidez egindako hiru kontrataziotan ez daude jasota kasu bakoitzean gertatzen diren salbuespenezko inguruabarrak eta beharizan premiazko eta atzeraezinak, abenduaren 30eko 20/2011 LEDen 3.2 artikuluari jarraikiz, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza gaietan premiazko neurriei buruzkoa eta abenduaren 23ko 22/2013 Legearen 20.2 artikuluari jarraikiz, 2014ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

#### Alegazioa

Oharrean adierazten da ez direla justifikatu egindako hiru errelebo kontratuetan gertatu diren salbuespenezko inguruabarrak eta presako eta geroratu ezineko beharizanak.

Errelebo kontratua Gazteriaren Foru Erakundearen hitzarmen kolektiboaren 98. artikuluan araututa dago; kontratazio modalitate horren erabilera bultzatzeko konpromisoa jaso da artikuluan horretan. Hala, errelebo kontratua aplikatuz gero, errelebistaren kontratua egin behar da, urriaren 31ko 1131/2002 Errege Dekretuak, lanaldi partzialarekin kontratatutako langileen eta erretiro partziala dutenen gizarte segurantzaren arautzen duenak, ezarritakoaren arabera. Aipatu behar dugu, halaber, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Langileen Estatutua- ren Legearen testu bategina onartzen duenak, 12. eta 16. artikuluetan ezarritakoa.

Horrexegatik ez da egin berariazko txostenik, 20/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluekin eta 22/2013 Legearen 20.2 artikuluekin bat etorritz; hots, errelebo kontratuaren aplikazioa Gazteriaren Foru Erakundearen legezko betebeharra delako, eta haren araudiak agintzen duelako bi kontratu egin daitezela, bata lanaldi partzialekoa, errelebatuarekin, eta bestea ordezkapenekoa, errelebistarekin.

Kontratazio horien beharrizan geroraezina, bestalde, Gazteriaren Foru Erakundearen jardura motak justifikatzen du; izan ere, kasu horietan lanpostuak zuzeneko arreta zerbitzu bati lotuta zeuden.

Nolanahi ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere oharrean adierazitako akatsa zuzentze aldera, hurrengo errelebo kontratuetan justifikazio txostena erantsiko da.

### III.3.2. Kontratazioa.

Gazteen Informazio eta Dokumentazio Lurralde Zentroaren mantentze-zerbitzuaren kontratuan (1 zk. espediente), 329.220 euroan esleitutakoan, ALHAOn argitara emandako iragarkiak ez du kontratua luzatzeko aukeraz artatzen eta horren balioetsitako balioak ez ditu luzapenen zenbatekoak barne hartu.

#### Alegazioa

ALHAOn argitaratutako lizitazio iragarkia aipatzen duen atalean, akats materiala egin da, ez delako iragarkian ohartarazi kontratua luzatzeko aukera dagoela. Dena dela, ohartarazpen hori berariaz jaso da kontratatzailearen profilean argitaratutako ezaugarrien taulan. Beraz, enpresa lizitatzaileen arteko berdintasunaren eta publizitatearen printzipioak bete dira.

### III.4. Foru Sozietate Publikoak.

#### III.4.1. Langileria gastuak.

Indesa 2010, SLko aldi baterako langileen kontratazioetako espedienteetan ez daude jasoak kasu bakoitzean gertatzen diren aparteko inguruabarrak, ez beharrizan premiazko eta geroraezinak ere (22/2013 Legearen hogeigarren xedapen gehigarria, 2014ko urterako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzkoa).

#### Alegazioa

Hona zerk justifikatzen duen kontratazioen beharrizan geroraezina: sozietateko aldi baterako langileak kontratatze espedienteek, funtsean, sozietateak jasotzen dituen mandatuetan eta sinatzen dituen kontratuetan ezarritako baldintzak bete beharrari erantzuten diote, eta behar horrek zuzeneko lotura du mandatuen bolumenarekin, mandatuetan langileei buruz ezarritako baldintzekin eta sozietateko absentismoaren bilakaerarekin.

#### III.4.2. Kontratazioa.

##### Alderdi orokorrak

Arabako Garapen Agentzia, SA., Arabako Lanak, SA., Arabako kalkulu-zentroa, SA., Naturgolf S. A., Indesa 2010 SL. eta Arabako Bideak, SAren kontrataziorako barne aginpideak aztertu ditugu; hona hemen azaleratu diren ez-betetzeak:

– Arabako Lanak, SAren aginpideek ez dute lehia printzipioa bete eta ekonomikoki onuragarrien den eskaintza eskuratuko denik bermatzen, proposamenak aurkezteko emandako epea izugarri laburra baita.

#### Alegazioa

Epaitegiak Arabako Lanak SAri egozten dio kontrataziorako barne jarraibideetan ez dituela jaso Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bategineko manuak, foru sozietate publiko hau administrazio publiko bat balitz bezala; are gehiago, egozten dio ez dituela aplikatzen testu bategin horretan jasotako kontratazio prozedurak.

Lege horrek, ordea, argi eta garbi ezartzen du Arabako Lanak SA. bezalako sozietate publikoak sektore publikoko sozietateak diren arren ez direla administrazio publikoak, botere esleitzzaileak baino.

Horrelako erakundeei lege horren manuek ia bete-betean eragiten diete «erregulazio harmonizatuko» kategoriaren barruan egiten dituzten kontratuak.

Botere esleitzaien gainerako kontratuei, hots, «erregulazio harmonizaturik gabeko» kontratuei dagokienez, botere esleitzaietarako barne jarraibideen bitartez araututako prozedurak erabili behar dituzte kontratu horiek egiteko, eta jarraibide horiek publikitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak errespetatu behar dituzte.

Gomendio horren ildotik, Epaitegiak uste du zenbait kasutan ez dela lehiaren printzipioa behar beste bermatzen Arabako Lanak SAren kontrataziorako barne jarraibideen bitartez, proposamenak aurkezteko epe laburregia ezartzen delako.

Dena dela, 2014ko ekitaldian egindako lizitazioak ageri dira beheko taulan, zuzeneko esleipenak izan ezik; eta ikus daiteke nola proposamenak aurkezteko ezarritako epeek ez duten eragotzi lehiaren printzipioa betetzea.

KONTRATAZIO ESPEDIENTEA	PROZEDURA	LIZITAZIO OINARRIA	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA	LIZITATZAILE KOP.
Zolatzea, Urizaharreko hegoaldea	Sinplifikatua	812.202,80 euro	20 egun	543.201,16 euro	12
Zolatzeko proiektua egin eta obra zuzentzea, Urizaharreko hegoaldea	Sinplifikatua	21.901,00 euro	5 egun	10.769,00 euro	7
Elizako hormak sendotzea, Markiz	Sinplifikatua	68.107,34 euro	17 egun	60.955,94 euro	4
Tesoro kalea eta Done Joane Ortegakoaren baselizarako bidea zaharberritzea, Navaridas	Sinplifikatua	126.249,76 euro	10 egun	122.035,23 euro	4
Zolatzeko proiektua egin eta obra zuzentzea, Lotza	Sinplifikatua	38.357 euro	5 egun	23.958 euro	20

– Arabako Bideak, SAren aginpideek hornidura eta zerbitzuetan, 50.000 euroren azpitiko kontratuetarako eskaintzarik eskatu gabe esleipen zuzena egitea aurreikusten dute; honenbestez, ez da lehia printzipioa betetzen, ezta ekonomikoki egokien den eskaintza hautatzekoa ere.

#### Alegazioa

Egia da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak sozietatearen jarraibideei buruz esandakoa, baina sozietatearen jardunean ohitura da hornidura eta zerbitzuetarako 50.000 eurotik beherako kontratazio prozeduretan hainbat eskaintza eskatzea, Epaitegiak finantza produktu deribatuen analisiari dagokion espedientearen berrikuspenean egiaztatu ahal izango zuenez.

– Naturgolf, SAren aginpideak ez zaizkio SPKLTBren araudiari egokitzen.

– Arabako Lanak, S. A., Arabako Kalkulu Zentroa, SA., Naturgolf, SA. eta Arabako Bideak, SAren aginpideek eguneratu gabe dituzte 2014an indarrean zeuden zenbatekoak SARA kontratuetarako.

#### Alegazioa

Aurreko bi oharrak direla eta, esan beharra dago 2014ko irailaren 23an Arabako Lanak SAK eguneratu egin zituela aipatutako zenbatekoak. Naturgolf SAK eta Arabako Kalkulugunea SAK akats hori zuzendu dute 2016an. Dena dela, garrantzitsua da agerian jartzea sozietateek ez dutela lizitatu 200.000 eta 207.000 euro bitarteko zerbitzu edo hornidurak kontratatzeko espediente bakar bat ere, ezta 5.000.000 eta 5.186.000 euro bitarteko obrak kontratatzeko espedienterik ere. Beraz, sozietatearen prozeduretan ez da publikitatearen printzipioa ukitu.

2014ko esleipenak eta aurreko urteetako kontratuak

– Araba Garapen Agentzia, SAK (1 zk. espediente) eta Naturgolf SAK (12 zk. espediente) hurrenez hurren 92.130 eta 435.600 euroan esleitutako bi kontraturen esleipen irizpideen artean enpresaburuaren kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea zuzendutakoak barne hartzen dira; horrek SPKLTBren 150. artikuluan xedatutakoa urratzen du, balorazio irizpideak eskaintzari dagozkionak behar dutela izan, eta ez eskaintzaileari dagozkionak esaten baitu.

#### Alegazioa

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatu duen akatsari dagokionez, ez gatzat bat Epaitegiarekin. Urturiko golf zelaiko mantentze zerbitzua kontratatzeko espedientearen, enpresa lizitatzailen



gaitasun teknikoa egiaztatzeko orduan, kontratua egokiro betetzeko ezinbestez behar den gutxienerako gaitasuna eskatu baita (kontratu bat gutxienez, zeinaren zenbatekoa kontratuaren zenbatekoaren berdina edo hura baino handiagoa izan baita).

Gero, prozedurako beste fase batean eta bereiz, esleipena egiteko balorazio irizpide subjektiboetan, egokitzen jo da eskatutako gutxienerako gaitasun tekniko hori hobetzen duten eskaintzaren ezaugarriak sartzera, kontratua ahalik eta ondoen gauzatu dadin. (Memoria teknikoaren kalitatea eta azterketa gradua).

Horri dagokionez, Kontratazio Administrazioari buruzko Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Aholku Batzordearen 59/2004 Txostenak dioena aipatu beharra dago: kaudimenerako baldintza gisa eskatutako giza elementuen eta elementu materialen kopurua gainditzearen irizpidea eska daiteke eskaintzak baloratzeko elementu modura edo esleipenerako irizpide modura, agiri-tan jasorik baldin badago, eta betiere kontratuaren helburuarekin derrigorrez lotura izatearen printzipio orokorraren barruan.

Beste horrenbeste adierazi du Madrilgo Kontratazio Publikoko Administrazio Epaitegiak. 40/2011 Ebazpena. Bitarteko tekniko handiagoak erabili ahal izatea eta kalitaterako bitartekoak hobetu ahal izatea, esleipenerako irizpide gisa. «Kontuan hartuta langile kualifikatuen atxikipenak eragin zuzena izan dezakeela egin beharreko lanen kalitatean, epaitegi honen ustez obrari atxikitako lantalde teknikoa (kaudimenean eskatutako gutxienerako lantaldearen gaintetik) esleipenerako irizpide gisa ezartzea ez da zuzenbidearen kontrakoa (...)».

— Arabako Kalkulu Zentroa, SAK 916.796 euroan esleitutako lau kontratutan (6, 7, 8 eta 9 zk. espedienteak) eta Indesa 2010, SLK 328.308 euroan esleitutako batean (11 zk. espedienteak) prezio irizpidearen haztapena aldakorra da, egiaz aurkeztutako eskaintzen arabera eta horrek desitxuratu egiten du pleguetan emandako balioa.

#### Alegazioa

Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 150. artikulua xedatzen duenez, kontratu bat esleitzeko oinarritzat hartu beharreko irizpideak kontratazio organoak erabaki behar ditu eta zehatz azaldu behar dira administrazio klausula berezien agirian. Irizpide bat baino gehiago aplikatuz gero, banan-banan nola haztatuko diren zehaztu behar da.

Goian aipatutako espedienteetan esleipenerako irizpideak ezarri dira, eta haztapen erlatiboa egin zaie formulen bidez ebaluatu daitezkeenei eta formulen bidez ebaluatu ezin direnei, hau da, balio judizio baten mende daudenei.

Epaitegiak dio prezioaren irizpidearen haztapena aldatu egin daitekeela aurkeztutako eskaintzen arabera, eta, horrenbestez, agirietan esleitutako haztapena indarrrik gabe geratzen dela.

Administrazio kontratuarentarako Aholku Batzordearen 2013ko maiatzaren 7ko 42/2012 Txosteneko ondorioetan hau azaltzen da: «... Aholku Batzordearen iritziz, formula logiko eta koherentea erabili behar da. (...) formula horietan lizitatuzaileak alde aurretik jakin behar du zenbat puntu lortuko dituen, gainerako puntuazioak kontuan hartu gabe (...)» Ildo bereko iritzia azaldu dute kontratuen arloko administrazio auzitegiek. Esate baterako, Aragoikoak ekainaren 28ko 22/2012 Erabakian dio proportzionaltasun linealeko arau baten aplikazioak berdintasun printzipioa bermatzen duela, eta onargarritzat jotzen du hura aplikatzea, nahiz eta prezioaren irizpidea haztatzeke araurik ez egon.

Hori guztia gorabehera, ez da ahaztu behar esleipen irizpideen helburua: erakunde esleituzailearen beharrezko ondoen betetzen dituen eskaintza aukeratzea. Haien bitartez eskaintzak ebaluatzen dira; beraz, zuzeneko lotura izan behar dute kontratuaren xedearekin, eta, formulen bitartez ebaluatu daitezkeen irizpideen kasu zehatzean, aurretiaz azaldutako neurketa arauak eta parametroak erabili behar dira, proportzionalak, eta preziorik onenak beti puntuaziorik onena izateko modukoak. Horrela adierazten du Aragoiko Erkidegoko Administrazio Kontratuarentarako Aholku Batzordeak martxoaren 3ko 6/2014 Txostenean.

Aztertutako espedientean zorrotz bete dira manu horiek guztiak.

– Indesa 2010, SLk zerbitzu bat eta hornidura bat zuzenean kontratatu ditu 97.613 euroren zenbatekoan; ordea, kontrataziorako barne aginpideen arabera, prozedura negoziatua bideratu behar zukeen, gutxienez hiru eskaintza egiteko eskatuta.

– Arabako Kalkulu Zentroa, SAK ALHren Aurrekontu Orokorrari egindako emendakinak kudeatzeko informatikako aplikazio bat garatzeko kontratua (8. Espedientea), 112.000 euroan esleitutakoa, 2014ko uztailaren 1ean desegin zen elkarren arteko adostasunez, esleipen hartzaile izan zen enpresak kontratuaren xede zen zerbitzua emateko ezintasunaren aurrean. Kontratua desegin zen datara arte egindako lana berrikusi eta onartu zen, 74.520 euroren zenbatekoan.

#### Alegazioa

Kontratu publikoen mota desberdinak hartu behar dira abiapuntutzat; izan ere, aipatutako arrazoia dela eta aukera gutxiago dago kontratu administratibo bat suntsiarazteko, kontratu publiko pribatu bat suntsiarazteko baino.

Kontratazio publikoari buruzko egungo araudiak kontratu administratiboak eta kontratu pribatuak bereizten ditu:

i) Kontratu administratiboak dira administrazio publikoek egiten dituztenak, zentzu hertsian; hau da, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 3.2 artikuluan aipatutakoek egiten dituztenak: Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoetako administrazioek, eta Toki Administrazioako erakundeek (mankomunitate, toki partzuergo, auzo batzar eta abarrekoak); (...)

(ii) Sektore publikoko gainerako erakundeek, administrazio publiko ez direnek, tartean Arabako Kalkuluguneak, kontratu pribatuak egiten dituzte.

Kontratu administratiboen kasuan, alderdien arteko akordiorik ezaren aplikagarritasuna, betekizunak eta ondorioak, kontratua suntsiarazteko kausa gisa, berariaz zehaztuta daude kontratazio publikoari buruzko araudi aplikagarrian.

Egoera guztiz bestelakoa da izaera pribatuko kontratu publikoetan. Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen 20.2 artikuluan azaltzen denez, horrelako kontratuen azkentzea zuzenbide pribatuko arauen bidez arautzen da, hau da, borondatearen autonomiaren bidez, horren mugekin, baina kontratu administratiboetarako ezarritako arauzko aurreikuspenek mugatu gabe.

Izaera pribatuko kontratu publikoak, beraz, alderdiek askatasunez ituntzen dutenaren bidez arautzen dira, baina beti errespetatu behar dira borondatearen autonomiaren mugak: ezin dira urratu indarra duen legeria, interes publikoa eta administrazio onaren printzipioak. Izaera pribatuko kontratu publikoak -alderdien borondatearen autonomiaren printzipioari lotuak- alderdien arteko adostasunez suntsiarazten direnean ere, berdin aplikatu behar da muga hori, bai kontratua alderdien arteko akordiorik ezaren ondorioz suntsiaraztearen bidez kotasunari dagokionez, bai suntsiarazpen horretarako zenbait baldintza ezarri eta alderdiek baliozkotasunez hitzartzen dituzten ondorioak ezartzearen bidez kotasunari dagokionez.

Kasu zehatz honetan, Arabako Kalkuluguneak, enpresa esleipendunarekin ados jarrita, suntsiarazi egin zuen zerbitzu baten prestazioa, hots, kritikotzat jotzen zen aplikazio informatiko baten eraikuntza. Hori dela eta, proiektuaren arduradunak emandako txostenean erabaki horren arrazoiak aztertzen dira, eta ondorio gisa adierazten da arrazoi horiek ezin zaizkiola oso-osorik egotzi esleipendunari. Erabakiaren ondorioak ere aztertzen ditu, eta Foru Administrazioari inolako kalte ekonomikorik eragin ez zaiola adierazten du.

#### III.4.3. Hornitzaileei ordainketa epeak.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legeak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena; Lege horrek Xedapen gehigarri hirugarrenean agintzen du sozietateek berariaz argitaratu beharko dutela haien urteko kontuen Oroitidazkian hornitzaileei ordainketak egiteko epeei buruzko informazioa.

Aipatutako oroitidazkien arabera, Arabako Lanak, SA., Arabarri, SA. eta Arabako Bideak, SA. sozietateek ordainketarako legeak agintzen duen gehienezko epea gainditu dute:

ERAKUNDEA	EUROAK MILAKOTAN	
	EGUNAK GAINDITUTAKO EPEA	ZENBATEKOA
Arabako Lanak, SA	59	2.311
Arabarri, SA	28	1
Arabako Bideak, SA	26	70

#### Alegazioa

Bai ARABAKO LANAKek, bai ARABARRI SAK eta ARABAKO BIDEAKek, gainerako foru sozietateek bezala, merkataritza sozietateak diren aldetik, euren urteko kontuen memorian berariaz jasotzen dute hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea. Epe hori, 2014an, honako ebazpen honetan ezarritako moduan kalkulatu da: «Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuaren 2010eko abenduaren 29ko Ebazpena, merkataritzako eragiketetan hornitzaileentzako ordainketak geroratu izanari buruz urteko kontuetan jaso beharreko informazioaren gainekoa (abenduaren 31ko BOE)».

Ebazpen horretako bigarren arauko A) atalak dioenez, «bertan ezarritakoaren ondorio hutsetarako, ordainketen batez besteko geroratze epe ponderatua (OGEP) kalkulatzeko, zatiketa hau egingo da: zenbakitzailean, ekitaldian hornitzaileei legezko epetik kanpo egindako ordainketa bakoitzaren zenbatekoaren eta legezko epea amaitu denetik ordaindu den arte igarotako egunen kopuruaren arteko biderkaduren batura; eta izendatzailean, ekitaldian legezko epetik kanpo egin diren ordainketen guztizko zenbatekoa.»

#### III.4.4. Bestelako irizpenak.

##### Arabako Lanak, S. A.

– 2012ko azaroaren 8an, Arabako Lanak, SAren Batzar Orokor Apartekoak estatutu berriak onartu zituen sozietatearentzat; hauek finkatzen dute sozietateak akziodunen berezko baliabide eta zerbitzu tekniko izaera izango duela sektore publikoko kontratuen sektoreko legerian aurreikusitako ondorioetarako. Estatutu hauek aztertuta eta SPKLTBaren 24.6 artikuluari dagokionez esan behar da ez direla bere akziodunen atal diren toki entitate horien aldetik kontrola dagoela baieztatzea bideratuko duten baliabideak aurreikusi eta horrek auzitan jartzen du sozietatea entitate horien baliabide propio izatea. Berebat, eta SPKLTBren artikulua berari dagokionez, Arabako Lanak, SAren estatutuek ez dute zehazten zein mandatu erregimen eman dakizkiokeen, zeina AFArekin 2012ko abenduaren 12an izenpetutako hitzarmen orokorrera lerratua geratzen den.

#### Alegazioa

Hain zuzen ere 2015. urtean, Arabako Lanak SAko Akziodunen Batzarrak, urte bereko uztailaren 31n egindako bileran, sozietatearen estatutuen 10. artikulua eta 18. 23. bitartekoak aldatu zituen; berariaz jaso zituen Arabako Lanak SAko bazkideek sozietatea kontrolatzeko mekanismoak eta, halaber, berariazko mandatuen araubidea.

– Arabako Lanak, SAK Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolegio Ofizialarekin hitzarmen bat izenpetu du, zeinaren arabera sozietateak bere kontratazio aginpideen arabera zuzenean edo prozedura sinplifikatu bidez kolegioak sortutako lan-poltsa baten bitartez lanak esleitu ditzakeen. Hitzarmenaren arabera, kolegioak zehazten du zein profesionalek osatuko duten lan-poltsa hau, eskatuko dituzten lanak egiteko beharrezkoak diren eskarmentu eta gaitasun teknikoko hainbat baldintzen arabera; baldintza horiek ez dira zehazten.

#### Alegazioa

Kasu honetan ere Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ez du zehaztu zer irregulartasun egin den. Definizioz, zuzenean esleitzen diren kontratuetan edo prozedura sinplifikatuetan, Arabako Lanak

SAk askatasunez erabakitzen du esleipena edo parte hartzeko gonbidapena egitea. Beraz, era berean, askatasunez hitzartu dezake Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Elkargo Ofiziala izan dadila lan poltsa sortzen duena berak egokitzat jotzen dituen profesionalekin.

Gainera, eskatzen den titulazio ofizialaz gain Arabako Lanak SAk kaudimen teknikoko baldintza osagarriren bat beharko balu lan zehatzen baterako, zalantzarik gabe sozietateak baldintza hori ere eska lezake, hitzarmenak ez baitu mugatzen profesionalak aukeratzeko legezko gaitasuna; aitzitik, Arabako Lanak SAren eta Arabako bide, ubide eta portuetako ingeniarien kolektiboaren arteko lankidetzarako tresna da.

– AFAk 2012an Arabako Lanak, SAren alde 390.000 euroren balioa zuten zenbait lonja laga zituen, 10 urteko eperako, bulego modura eta ibilgailu eta tresneria gordetzeko erabilera eskusiboa izateko. Diputatuen Kontseiluak 2014an lonja horiek doan besterentzea erabaki du, ekitaldiko urteko kontuak onartu diren datan Erabaki hori Merkataritza Erregistroan erregistratu ez dela.

– Ez ditu ALHAAn argitaratzen eraikitako kultur ondarea zaintzera emandako jarduerak sustatzeko 300.000 euroren zenbatekoan emandako diru-laguntzak (3/1997 FAren 9.3 artikulua).

Arabarri, SA.

Sozietateak ez ditu amortizatzen ibilgetu ukiezinean 1,6 milioi euroren zenbatekoan erregistratutako ondasunak, amortizazio hori salbuestea justifikatuko duen inongo arrazoirik ez dagoela.

Alegazioa

2015ean zuzendu egin da aipatutako ibilgetuaren amortizazioa, eta azalpen hau eman da Memorian:

«Ruiz de Vergara jauregia erabiltzeko eskubidearen amortizazioa (210.000,00 euro) lagapen aldian egiteko asmoa zegoen, erabiltzen hasiz gero zenbatuta (hau da, bulegoak jauregira eramanez gero). 2015eko ekitaldiaren itxieran, oraindik ezin izan da egin lekualdaketa. Hori dela eta, sozietateak amortizaziorako zuzkidura lagapen aldian zehar modu linealean egitea erabaki du, eta horretarako 28.000 euro jarri ditu, hain zuzen ere 2015eko ekitaldia itxi arte igarotako urteei dagokien zenbatekoa.

Gainerako zenbatekoa (1.388.208,38 euro) Ruiz de Vergara jauregian egiten ari den obrari dagokio; aktiboa funtzionamenduan jartzeko prest dagoenean hasiko da amortizatzen.»

Indesa 2010, S. L.

Merkataritza Erregistroan erregistratzeke daude 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako urteko kontuak. Sozietatearen erregistro orria itxia dago eta ezin dira jaso errektoretza organoen ekintza eta erabakiak, hala nola, 2013ko apirilaren 25eko bazkideen Batzar Nagusian onartutako kapital zabalkuntza, 3,9 milioi eurorena, ekarpen ez diruzko bidez ordaindutakoa, Sozietatearen ondare garbian erregistratua ez dagoena.